

# Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a / 711. zenbakia

AZPIEGITURAK / Arrasateko errepideak

## Azken 100 urteotako azpiegitura lanik handienak iragarri dituzte Arrasaterako

UBANE MADERA

Laster hasiko dituzte Epeletik Eroskiko biribilgunerainoko errepide zatia handitzeko lanak. Abendurako bukatuko dituzte. Diputatu nagusiaren esanetan, 2005a urte garrantzitsua izango da Arrasaterendako, inguruan egin behar dituzten azpiegitura lanak direla-eta.

Bikoiztu egingo dute Epeletik Eroskiko biribilguneraino (Kaskonategi) doan Gi-627 errepidearen zatia. Hau da, lau errei ipiniko dizkiote, noranzko bakoitzeko bi. Horrez gainera, sarbideak berrantolatatu egingo dituzte, segurtasuna hobetzeko asmoarekin.

Bikoiztu beharreko zatia 860 metro luze da eta 17,80 metro zabal. Galtzada bi izango ditu, eta bakoitzean 3,50 metro zabal izango diren bi errei. Bi galtzadak bereizteko, berriz, hormigoizko erdibitzailea ipiniko dute.

Esandakoaren arabera, lan horien proiektua jendaurrean dago orain; eta dagoeneko atera dute enkantera. Horrenbestez, laster hasiko dira, hilabete edo bi hilabete barru. Eta abendurako bukatu egingo dituzte.

Astehenean eman zituzten horiek datu guztiak Diputazioako ordezkariak. Tartean, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia izan zen.

### ZAILTASUNIK HANDIENA

Lan zaila dela azaldu zuten. Zailtasunik handiena izango dela obrak egitea zirkulazioari eragozpen larregi eragin barik, batez ere, errepide horretan ibilgailu asko dabilelako "bataz beste 20.000 ibilgailu egunean". Hiru fasetan egingo dituzte lanak: lehenengo zatia errepidea ukitu barik egingo dute; bigarren errepidea estutu egin beharko dute; eta hirugarrenean, bide berritik desbideratu beharko dute zirkulazioa eta gaur egungo errepidean lanak egin.

2,6 milioi euroko aurrekontua zehaztu dute lanok egiteko.

### AURRERAPAUZO GARRANTZITSUA

Gero, errepide horrekin lotuko dira beste bi: Eibartik Gasteizera doan autobidea eta Beasain-Duran-



Diputazioako ordezkariak udaletxeko prentsaurrekoan, ezkerretik eskumara: Nestor Arana, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Inazio Lakuntza eta Javier Zuriarrain.

go korridorea. Horren harira, Inazio Lakuntza alkateak adierazi zuen Diputazioari esker inguruko errepideek bultzada handia izango dutela: "Geroz eta errazagoa da Donostiatik Arrasatera etortzea".

### OLANDIXOKO TUNELA

Epele-Kaskonategi errepideaz gainera, Arrasaten eta inguruan las-

*Olandixoko tunela egitea da Arrasaterako duten helburu nagusienetako bat*

ter egiteko diren bestelako azpiegiturak ere aipatu zituzten prentsaurrekoan. Halaber, Arrasaterako duten helburu nagusietako bat Olandixoko tunela egitea dela esan zuten. Horren harira, jakinarazi zuten tunel horren gaineko proiektua dagoeneko idazten dabilzala eta ekain edo uztaillerako idatzita izango dutela. Gai-

neratu zuten, asmoa dela urtea bukatu baino lehen lanak esleitzea eta 18 hilabeteko epean bukatzea. Alkateak tunel horren garrantzia nabarmendu zuen: "Polmetasa, Garaia eta Fagor Ederlanen fabrika berria moduko proiektuak Olandixoko tunelarengatik baldintzatuta daude".

### ALDAKETA HANDIAK

Oro har, azpiegitura lan horiei gutxi esker, Arrasaten errepideen egoera dezente aldatuko dela azaldu zuten alkateak eta diputatu nagusiak. Arrasatek 2005ean aukera aparta izango du azpiegiturak erro-errotik aldatzeko (...) Nekez egongo da berrir 2005ean egingo dugun moduko aldaketa". Hala esan zuen Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik. Halaber, gaineratu zuen hiru azpiegitura horiekin (autobidea, Epeleko errepidea eta Olandixoko) "Arrasate berebiziko jauzia egingo duela laugarren hiriburuaren ikuspuntutik".

## Diputazioak iragarritako beste obra batzuk:

Aurtengo uztailean Eibar-Gasteiz autobidearen Arrasaterainoko zatia zabalduko dute; eta Arrasatetik Eskoriaztzarainokoa esleitu egingo dute.

Mugarri inguruan bide-gorriari jarripena egingo diote, oinezkoen segurtasuna bermatzeko. 284.000 euro gorde dituzte lanak egiteko.

Helburu nagusia, berriz, Olandixoko tunela egitea da. Dagoeneko proiektua idazten dabilza; ekain edo uztaillerako

proiektua bukatuta izatea espero dute eta urtea bukatu baino lehen lanak esleitu egingo dituzte. Gero, 18 hilabeteko epea ezarri dute tunela egiteko.

Bestalde, aurrera begira, herri-garraioa indartzeko asmoa dutela esan zuen Txabarrik: "Herri-garraioan defizit ezaguna dugu bailara honetan (...) Baina legealdi honetan urrats garrantzitsuak egiten gabiltza". Hala, tranbia egiteko eta bide-gorri sarea handitzeko asmoak gogora ekarri zituen.

TRANBIA/ Tranbiaren kontrako alegazioak aurkezteko epea bukatu da

# Hogei alegazio baino gehiago ipini dizkiote tranbiaren proiektuari Arrasaten

UBANE MADÉRA

Zenbait herritarrek eta Udalak tranbiaren proiektuari 23 alegazio egin dizkiote. Gipuzkoa etorbideko zenbait bizilagun, Zarugaldeko zenbait merkatari, Eroski eta Eskola Politeknikoa daude tartean. Jaurlaritzara bidaliko dituzte alegazio guztiak, hark erantzuteko.

Alde batetik, 18 alegazio aurkeztu dizkiote tranbiari, partikularrek. Nabarmenenak honako hauek dira: Eroski hipermerkatuak proposatu du hipermerkatura doan errepidea ahalik eta gertuen ipintzea tranbiaren ibilbidetik. Kontua da zenbat eta urrunago egin, orduan eta lur gehiago kendu beharko diotela Eroskiri; eta zenbat eta espazio gehiago kendu, orduan eta aparkaleku gehiago galduko dituela.

## GIPUZKOA ETORBIDEKO BIZILAGUNAK

Bestalde, Gipuzkoa etorbideko 47 eta 49. zenbakietako bizilagunek eskatzen dute tranbiaren ibilbidea aldatzea zati hartan. Izan ere, gaur egungo proiektuaren arabera, etxe hura bota egin behar dute, tranbia justu handik pasatzen da-eta. Horren harira, esan beharra dago epe luzera etxe hori planeamenduz kanpo gelditzen dela; horrenbestez, Udalak lehenagotik pentsatuta zuela botatzea. Hala, Jaurlaritzakoak tranbiaren planoan egiteko orduan, etxea botata egongo balitz moduan jokatu dute eta Jaurlaritzarendako hango bizilagunak ez dira kaltetu moduan azaltzen.

Alegazioekin segituz, apurtxo bat aurrerago, Gipuzkoa etorbideko 17, 19, 21 eta 25. atarietako bizilagunek beste alegazio bat aurkeztu dute: kale hartan egin behar duten tranbiaren geralekua esandakoa baino apurtxo bat beherago eraikitzea, bizilagunen segurtasuna bermatzeko.

## ZARUGALDE KALEKOAK ETA BESTE

Era berean, Zarugalde kaleko zenbait bizilagun eta merkatariaren alegazioak ere aztertu beharko ditu Jaurlaritzak. Kasu horretan, tranbia dela-eta, Zarugalden aparka-



Gipuzkoa etorbidean, tranbia argazkian ikusten duzun etxebizitza horretatik pasatzen da justu.

*Gipuzkoa etorbideko, Zarugaldeko eta Takolo baserriko bizilagunek ibilbidea aldatzea eskatu dute*

leku asko galduko direla alegatu dute. Eta tranbia egin eta gero, errepideak noranzko bakarra izango duelako ere kexatu dira.

Takolo baserrikoek, berriz, alegazioa aurkeztu dute tranbiaren ibilbidea aldatzeko eskatuz, baserria bota egin behar diete-eta. Eskatu dute ibilbidea aldatzea ez badute onartzen, baimena eman diezaietela baserri berria eraikitzeko, errepidetik ahalik eta gertuen.

Eta bestelako alegazioen artean, Gizabidea Fundazioak eta Eskola Politeknikoa alegazio bana aurkeztu dute. Biek hala biek

*Eskola Politeknikoa eta Gizabidea eskatu dute Arrasate pasealekutik pasatzea tranbia*

diote tranbia eskola aurretik pasatzen bada (proiektuan azaltzen den moduan) eskolarako sarrera oztopatu egingo duela, eskolako gune pribatu bat okupatu egingo diela eta, gainera, aparkalekuak ere galduko dituztela (100, guztira). Hala, hori ez gertatzeko proposatzen dute tranbia Arrasate pasealekutik desbideratzea eta eskolatik gertu geraleku bat ipintzea.

## UDALAREN ALEGAZIOAK

Bukatzeke, Arrasateko Udalak bost alegazio aurkeztu dizkio tranbiari. Besteak beste, zera

*Mugarrietan herritar ugari ibiltzen dela-eta, han geralekua ipintzeko eskatu du Udalak*

eskatu du: tranbiarekin batera eraikiko dituzten espaloiak 2,50 metro zabal izatea, irisgarritasuna bermatzeko; tranbiaren eraikuntzan ahalik eta berdegune gehien sortzeko ahalegina egitea; Mugarrieta inguruan geraleku bat ipintzea, han inguruan Arrasateko eta Aretxabaleto herritar ugari ibiltzen delako; eta azkenik, tranbiaren proiektua ahalik eta lasterren idazteko eta enkantera ateratzeko eskaera ere egin dio Jaurlaritzari, obrak lehenbailehen hasi ahal izateko.

## LABUR

### Emakumeen munduko martxa dela-eta, hitzaldia

Emakume Txokoak Emakumeen Munduko Martxaren aurkezpene izeneko hitzaldia iragarri du datorren apirilaren 20rako. Euskal Herriko Mundu Martxako Plataformako kide Alizia Otxoak egingo du berba. 19:00etan hasiko da hitzaldia, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

### Epele-Kaskonategi errepide zatia egiteko desjabetzeak

Udalak dei egin die Epele-Kaskonategi errepide zatiko lanengatik desjabetzea jasango behar duten jabeak. Hain zuzen ere, datorren astelehenean, hilak 18, osoko bilkuren aretoan joan beharko dute, egin beharreko desjabetzeekin lotutako aktak jaso behar dituzte-eta.

### Loramendiko urbanizazio lanak esleitzeko prozesua

Kolektorearen lanak egin behar dituztela-eta, hori aprobetxatu eta oinezkoendako pasabidea egokitzeko lanak egingo dituzte Loramendiko kalean. Asmoa da oinezkoendako gune egokia lortzea, zirkulazioari eta gaur egungo aparkalekuei kalte egin barik. Era berean, lanak egin dituzten bitartean, autoen joan-etorriari ahalik eta eragozpenez gutxien sorrarazten ahaleginduko dira. 453.623 euroko aurrekontua zehaztu du Udalak lanok egiteko. Eta lanak esleitu ostean, sei hilabete epean bukatu beharko dituzte. Hain justu ere, oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarrean urbanizazio lan horien esleipen prozesua zabaldu dute. Orain, enpresen proposamenak jasoko dituzte, gero lanak esleitu dituzte eta hori guztia egin ostean, hasi egingo dira.

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel.: 943 79 48 77 ARRASATE

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

ATXILOKETAK/ Bi arrasatearren kontrako epaiketa

# Kartzelaratu egin dituzte joan den asteko atxilotuak

UBANE MADERA

Askatasunak aditzera eman digunez, joan den astean atxilotutako Gaizka Aztiria eta Gorka Olabarrieta mondragoe-tarrak Soto del Real espetxean sartu dituzte. Donostia komandoko kide izatea egotzi die epaileak. Biek ukatu egin zuten akusazioa.

Bost egunean inkomunikatuta izan dituztela salatu du Askatasunak eta epailearen aurrean ere inkomunikatuta deklaratu dutela: "Beti salatu dugun bezala, inkomunikazioa torturen bitartez atxilotuen erruztatzea lortzeko eta hauek suntsitzeko erabiltzen da". Horren harira, Gorka Aztiriak eta Gaizka Olabarrietak tratatu txarrak salatu dituztela jakinarazi dute: "Gorka lau egunez jan eta edan gabe egon da, Gaizkak izandako tratatu txarregatik ile asko galdu du". Halaber, gaineratu dute, besteak beste, Gaizka Olabarrietak buruan eta sorbaldan kolpeak jaso izana salatu duela, baita flexioak



Astehenean manifestazioa egin zuten elkartasuna adierazteko.

egitera behartu dutela eta ez diotela lorik egiten utzi ere. Horrez gainera, poltsa eta elektrodoekin mehatxatu dutela ere salatu dute.

Edozelan ere, bi mondragoe-tarrak kartzelara sartzeko agindua eman zuen epaileak, Soto del

Realera, oraingoz. Erakunde armatuaren kideak izatea egotzi die epaileak, Donostia komandorekin lotuta, hain justu ere. Askatasunak aditzera eman duenez, bi gazteek ukatu egin dute ETAre laguntzaile izatea.

## San Andresko emakumeek gainerako eskubideak gura

U.M.

San Andres auzoko emakume taldeak berretsi egin du oraingo astean auzoan lokala eskuratzeko nahia. Kontatu digute herriko gainerako auzoetako emakume taldeen egoera eurenaren bera dela.

Kontua da San Andres auzoko alkatetzak esan diela ezin diela lokalik eman, hori Arrasateko Udalaren eskumena edo kompetentzia delako. Horrez gainera, Udalak adierazi zien lokala lortu ahal izateko talde moduan eratu beharko dutela, legeak hala dioelako.

Oraingo astean, emakumeek eskaera horri erantzun egin diote. Hala, zera azaldu digute: "Jakin gura izan dugu zein den Arrasateko gainerako auzoetako emakume taldeen egindako bidea. Ikusi duguna da Uribarrin, Santa Teresan, Zigorrolan eta Garagartzan badirela emakume taldeak, aisialdiarekin edo

kulturarekin lotutako ekintzak egiten dituztela, udal lokaletan egoten direla, auzoko alkatetzan edo zaharren egoitzetan eta are gehiago, haietariko bat edo batek Udalaren dirulaguntza jaso ere egiten duela ikusi dugu".

### ESKUBIDE BERAK GURA

Hori ikusita, San Andresko emakume taldearen galdera da ea zergatik euren baldintza bereziak esijitzen dieten. Gogora ekarri dute zaharren egoitzarik, ludotekarik eta emakumeendako lekurik ez duen Arrasateko auzo bakarra dela. Eta auzorik jendetsuenetakoa dela, gainera. Hala gainontzeko auzoetako taldeek dituzten eskubide berak izatea besterik ez dutela gura adierazi digute.

### JAIETARAKO, ZEMEIKORIK EZ

Bien bitartean, lokala lortzeko lanean segituko dutela jakinarazi digute. Hasteko, San Andresko aurtengo jaiak euren-gandik zemeikorik jasoko ez dutela esan dute.

## Altamirako auzotarrek jaiak ospatuko dituzte bihar

U.M.

Altamira auzoan buru-belarri dabilta aurtengo jaien egitaraua prestatzen. Bihar izango dute jaiak, goizean hasi eta ilunkerara arte. Aurten, gauean ez dutela erromeriarik egingo erabaki dute.

Jaien antolatzaile Eli Altzolak adierazi digunez, beste urte batzuetarako erromeria antolatu izan dute, ilunkeratik aurrera. Baina, oso jende gutxi parte hartzen zuen ekimenean. Horregatik erabaki dute aurten arra-

tsaldeko azkeneko orduan amaitzea auzoko jaiak.

### EGITARAUA

Hasteko, 10:30ean etxafuegoak eta dultzaina-joleak izango dira; 11:30ean umeendako jokoak egingo dituzte plazatxoan eta 13:00etan auzoko taberna zabalduko dute. Arratsaldean, berriz, 16:00etan umeendako margo-lehiaketa egingo dute; 18:00etan, txokolatada; 18:30ean, auzoko erretiratuak omenduko dituzte eta Lore Gazteak taldearen saioa izango da; 19:00etan meza esango dute San Frantziskon eta 19:15ean kilikiak.

## San Frantzisko Xabier Ikastolan beharrean, Uarkapen bozkatu behar

U.M.

Domekako hauteskundeetan, besteak beste, berritasun bat izango da Arrasaten: orain arte moduan San Frantzisko Xabier Ikastolan bozkatu beharrean, Uarkape pilotalekura jo beharko dute han erroldatuta dauden bizilagunek.

Alkateak aspaldi iragarri zuen halako zerbaiteko

asmoa zutela, haren esanetan, Uarkape pilotalekua San Frantzisko Xabier Ikastola baino leku egokiagoa delako bozkatzera joateko.

### AURRERAGO, ALDAKETA GEHIAGO

Horren harira, aurrera begira, Iturripen ere gauza bera egiteko asmoa dute. Hau da, Uribarriko auzotarrak Iturripen bozka deza-

tela. Baina oraindik Iturripen berogailurik ez duela-eta, erabaki dute oraingo honetan lehengo era berean egitea.

### EZINDUENDAKO ZERBITZUA

Bestalde, domekarrako gaixo eta ezindu fisikoendako garraio zerbitzua jarriko duela iragarri du Jaurlaritzak, guztiek izan dezaten botoa ematera joateko aukera.



# URONDO


Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



# Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

**iaran**

Zerrajera 1.  
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian  
zapatuak: 08:00-14:00

**JADE**  
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 16 31

ILE APAINDEGIA

**virginia.L**

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 65 65



**AUSART**

Ile apaindegi mistoa  
Estetika zentroa  
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60  
943 77 21 58

ILE APAINDEGIA

**ILEA**  
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

**Lore**

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50  
Lurrindegia eta estetika zentroa



KORA O'NEAL Ajea HR CLARINS BIOTHERM VALMONT



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak

## Astra GTC berria

Hain da dinamikoa, begiratu eta gerrikoa  
jarri beharko duzu



Begiratu, hori bakarrik egin behar duzu. Opel Astra GTC berria arintasunarekin eta segurtasunarekin mugitzeko pentsatua dago. Ondorengo motorrak: 2.0 Turbo 200 ZP eta diesel CDTI 150 ZPraino, IDS eta Sport Switch sistemak, AFL faro moldakorak, haizetako panoramiko eskusiboa, ESP egonkortasunaren kontrol elektronikoa, 6 aire-zaku, abiaduraren kontrola, barruko nabigatzailea, irratia-MP3 eta telefono integratua, 18" aleaziozko hagunak. Gidatzean disfrutatzeke behar duzun guztia.

[www.astragtc.com.es](http://www.astragtc.com.es)

**GMAC FINANCIAL SERVICES**

Proba ezazu 3 egun\* konpromisorik gabe ondorengo telefonora deituta 902 21 23 23, edo zure Opel Banatzailean.

Promozio baliagarria 2005eko maiatzaren 7tik ekainaren 30era. Probak egingo dira banatzaileek modelo honetako autoa prest baldin badute. Ondorengoentzako baliagarria: banatzaileen sarearentzat eta promozio honetan parte hartzen duten Espainiako Opel Salmento Ofizialeko Agenteentzat. Notario aurrean utzitako oinarriak eskuragarri. Irakurti ondo, mesedez, autoa erobitzeko dokumentuan agertzen diren baldintzak. Astra Gama GTC. Konsumoa (l/km) mistoa 4,8tik 9,3ra. CO<sub>2</sub> emisioa (gr/km) 130etik 223ra.

### Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:  
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE  
[www.giauto.es](http://www.giauto.es)

### Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:  
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA  
[www.giauto.es](http://www.giauto.es)


## KALEINKESTA/ Ze eskatuko zeuskio domekan urtengo dauen lehendakarixei?



**AITOR ELORTONDO**  
Langillie



**LIERNI ASPE**  
Langillie



**JUAN SALA**  
Langillie



**ANDONI CABELLO**  
Langillie



**MAR CARMONA**  
Langillie



**ESTHER ZAITEGI**  
Langillie

Oin arte egin dauen partidismue alde batera itxi eta benetako bake prozesu baten alde egiteko eskatuko neuskio. Horrek balixodau Ibarretxendako eta beste edozeiniendako be.

Ilusiñue egingo leuskit independentzian aldeko apostue egingo baleu. Horrekin batera, alderdi abertzaliok elkartu eta Euskal Herri indartsuen alde egiteko eskatuko neuskio.

Zentzutasune eukittie. Ez dot pentsetan kanbixorik egongo danik. Batzuk ideologiagaittik emuten daue botue, eta hori ez da zentzudune. (Barre) Pragmatikuek izen biher dou.

Esango neuke oin arte egon danak badaukola zertan hobetu. Lehendakarixek etxebizitzak merkaketako neurrixek hartu biherko leuke. Eta politikoki be badau ze konpondu.

Aurrerapausuek emuteko, hamengo problemie konponketako. Pentsetan dot kanbixuek onak diela. Ez nau iñungo alderdixen alde, baiñe rotaziñuek komenigarrixek izeten die.

Daukoun egoerie konponketan ahaleginketie, presuen alde egittie... Ez dakit kanbixorik egongo dan, baiñe egixe esateko, ze dauen ikusitte, gureu dot oinguek barriro be urteten badau.

## USTEAKUSTE

### Irudimena

**B**este behin hauteskunde zurrunbiloan pilpilean gaude. Berriro? Badirudi hemen beti hauteskudeetan gaudela. Are gehiago, Espainiako agintari pisutsu gehienek txangoa egin dute hemengo hauteskudeetan eragiteko. Garrantzia omen dauka Euskal Herriak. Azkeneko bizpahiru hauteskudeetan bezalaxe, oraingoan bi alderdi edo herri-plataforma legez kanpo utzi dituzte. Legez kanporatze bat aurretik iragarrita zegoen, baina horregatik ez da demokratikoagoa izan. Eta bestea, herritar talde batek bultzatutakoa, berehala zapuztu dute. Lotsagarria da gaur egun gobernuek halakoak egitea. Ez dauka beste izenik.

Azken asteotan, berriz, gertaera batek zur eta lur utzi du Espainiako Estatuko biztanleria. Euskal Herriko Alderdi Komunista izeneko taldeak legez kanpo gelditu direnei eskaintza egin die milaka hauteslek ahotsa eta ordezkari izan dezaten. Orain herritar askoren eztabaida nagusia omen da ea aurretik hitzartuta zuten. Horrek benetan ote du garrantzia? Kontuak morboa du niretzat ere bai, baina garrantzitsuena da aukera guztiak aurkeztu ahal izango direla, eta hori nire ustetan ezinbestekoa da.

IKER BARANDIARAN

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK GAZTETXEKO EGITARAUARI** Herriko gazte batzuek aditzera eman digute gaztetxeako batzarrak (AGAKO) antolatutako urterren-egitarauarekin oso pozik daudela. Egitarau horretan "gazte askorendako moduko ekintzak" daudela nabarmendu dute eta hori oso txalogarria dela, horrek "gazte gehiago erakartzen dituelako". Arrazoi horregatik eta hainbat gaztek "urtean zehar herriko gazteendako musutruk ekintzak antolatzen" ibiltzen direlako, esker oneko hitzak esan dizkigute AGAKOrendako.

## ASTEKODATUA

**61**

**ORTU EGINO DITUZTE GARAGARTZAN**

Udaleko Ingurumen Sailak aditzera eman digu Garagartzan 61 ortu egingo dituztela. Gehienak erretiratuendako izango dira, baina horietako batzuk Udaleko Ongizate Saileko laguntzak jasotzen dituztenek erabili ahal izango dituzte.

## HERRITARRENBERBAK/ Ander Etxeberria



4,2

**H**emendik denbora batera beste gai bat izan genezake hortik zehar gaudenean egiten ditugun lagunak gure herrira gonbidatzeko. "Etorri, etorri gurera, tranbia daukaguetan". "Tranbia? Zuek?". Eta guk harro-harro: "Ba bai". Hori bai, ez dadila Bilbokoa izan, zeren eta titaniozko museo aurretik pasatzen den tranbia postal gaindiezina da.

Burdinbidearen itzulera izango litzateke, ia 40 urteren ostean. Oraingo hau bailaran zeharreko garraiobidea bezala aurkeztu dute, joan zen mendekoa Gasteizera edo Lizarrara iristen zen artean. Hura tren zen eta hau tranbia. Hala ere, badago gure artean gizon-emakume espezie bat kotxearekin harreman oso estua duena. Batzuk domekan ogia erostera joateko ere erabiltzen dute autoa. *Far West*-en zaldia gurtzen bazuten, hemen laugurpilduna dago. Eta honek betetzen ditu hango lauhankakoaren funtzioak:

besteak beste, nahi denean nahi den lekura mugitzea. Pelikuletan, lurralde haietako zaldunak diligentzian gutxitan ikusten badira, hemengoek nekez erabiltzen dituzte autobusak. Eta bailarako herrietan ibiliko da tranbia, dagoeneko autobusak gora eta behera lotzen dituenak.

**"Batzuek domekan ogia erosteko ere erabiltzen dute autoa. Far West-en zaldia gurtzen bazuten, hemen laugurpilduna"**

Horrelako pentsamenduetan murgilduta nengoen proiektuari buruzko erakusketara gerturatu nintzenen. Paneletan ikusgai zeuden hainbat xehetasun, esate baterako: zenbat fasetan burutuko

den, aurrekontua, zein kaletatik pasatuko den, geltokiak non egongo diren eta zein ezaugarri izango dituzten, ibilbideen denborak, ekarriko dituen onurak... Baita funtsezko datu hau ere: 4,2 milioi. Hori da proiektuaren egileek espero duten bidai kopurua urtean. Marka potoloa, dudarik gabe. Dudarik gabe? Ez zen azaltzen nola kalkulatu den, edo aurreikuspena errealitate bihurtzeko ezer berezirik egingo den.

**Arrasate Press**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Natali Martínez  
Amaia Mundiñano  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaiñzarain  
Ane Bereizbar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
55-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala



GOIENKARIA

18:00etan jokatu du Mugarri Alkesak bihar. Bi ordu lehenago hasiko du Mondrak norgehiagoka, Atxabalpen.

**KIROLA/** Andoni Arandoren mutilek Deustuko Unibertsitatearen kontra jokatu dute

## Pasaia Atxabalpen, Consmetal Iturripen eta AGR Arrasate kanpoan

XABIER URTZELAI

Futboleko eta saskibaloiko jarraitzaileek etxean ikusi ahal izango dituzte talde nagusien norgehiagokak. Mondrak taularen erdian dagoen Pasaia hartuko du, eta Mugarri Alkesak postu bat gorago dagoen Consmetal izango du bisitari.

Mondrakoek eurak baino bi postu atzerago dagoen Pasaiaren kontra neurtu beharko dituzte indarrak asteburuan. Arrasatekoak moduan, pasaitarrak ere lasai egon ahal dira, dagoeneko lortu dituzte-eta mailari eusteko

beharrezkoak diren gutxieneko puntuak. Horri esker, bi taldeek beldur barik jokatu ahal izango dute bihar; markagailura begira egon barik, erasotzeaz arduratuta. Izan ere, Aretxabaletara joan zirenek merezi dute saria.

### MUGARRI ALKESA, HIRUGARREN

Saskibaloian, joan den astean Tabirakok asmatu zuen Arrasatekoen bolada ona nola hautsi. Hirugarren sailkatuta, Gorka Zurututzaren mutilek bigarren dauden Consmetalekoak izango dituzte Iturripen. Larraonakoek Federazio Kopan jokatu dute bi norgehiagokak irabazi dituzte,

eta beldur barik aurreratu genezake zapatuko norgehiagoka erakargarria izango dela.

### AGR-K, BIGARRENA SEGIDAN KANPOAN

Azkenik, eskubaloian, AGRko mutilak kanpora joango dira berriro ere. Joan den astean, igera fasean, ondo irabazi zioten Urdulizi (27-38), eta lider dagoen Bidasoa-Irun taldeari ihes egiten utzi barik, Arrasatekoak hirugarrenak diren Deustukoek kontra jokatu dute asteburuan. Lehia politean dabilta saskibaloiko eta eskubaloiko mutilak. Ea futboleko azkeneko jardunaldiak ez diren gatzgabeak.

### MENDIKO ESKIA

## Besaidek mendiko eskia egiteko irteera antolatu du

Apirilaren 23an eta 24an egingo dute irteera Besaidekoek, Bareges ingurura (Frantzia). Lehenengo egunean Baregesen hasiko dute ibilaldia, handik Hourquette Mounicot-erako bidea hartuko dute, eta La Glereko aterpean igaroko dute gaua. Bigarren egunean, domekan, Aterpetik Turon de Neouvillera (3035 metro) eta Barege-era itzuliko dira. Izena emateko egunak datorren astelehena, hilak 18, eta martitzena, hilak 19, izango dira. Jakin, izena ematerakoan 30 euro aurreratu beharko direla. Beharrezkoa da 2005eko federatu txartela.



## Iker Elortza, maila gorenera bidean

Aurten egin du Iker Elortzak Ordiziarekin lehenengo urtea, eta azkeneko asteotan min hartuta egon eta gero, asteburuan jokatzeko moduan egongo da. Igoera faseko azken norgehiagoka da; irabaziz gero, Ikerrek lehenengo mailara egin dezake jauzi X.U.

## LABUR

### Ezpeleta anai-arrebak eta Haritz Kortabarria aurrean, Urrietako lasterketan

Joan den asteburuan egin zuten Urrietatik Adarramendirako mendi lasterketa, eta Arrasateko hiru lasterkari izan genituen aurreneko postuetan. Zuhaitz Ezpeleta bigarren helmugaratu zen 13 kilometroko proban (1:01:58), Ionut Zinka korrikalariaren atzetik. Gasteizen bizi den lasterkari errumaniarrak minutu eta erdiko alde batera zion Bedoñakoari. Zuhaitzek, baina, nahikoa egin zuen bigarren helmugaratzen, kolpe ederra hartuta amaitu zuen-eta lasterketa. Haritz Kortabarria, berriz, lau minutu geroago iritsi zen, laugarren postuan (1:05:56).

Emakumeetan, Leire Ezpeletak ere lan ederra egin zuen lasterketan, hirugarren emakume azkarrena izan zen-eta (1:29:21). Egin zuen eguraldi txarrak goitik behera baldintzatu zuen proba.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### EMAITZAK

Abokajarro - Betrayer	3-12
H.L.B 108 - Manhattan Pippol	1-6
Irati Taberna - Dribling	8-8
Billy & The Cowboys - Ekipo Aldeano	5-3
Goma2 - Lasagabaster	0-1
You Know! - AC Surcos	2-2
Tomahawk - Iriztu Taberna	3-7
Saukelu Scream - Fuxion	5-3

### SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. You Know!	24	15
2. Saukelu Scream	24	15
3. Irati Taberna	22	15
4. Betrayer	22	15
5. AC Surcos	22	16
6. Dribling	20	16
7. Iriztu Taberna	20	15
8. Lasagabaster	20	15
9. AT Celaya	15	14
10. Billy & The Cowboys	13	14
11. La Kuadrilla	12	14
12. Fuxion	11	15
13. HLB 108	10	15
14. Goma2	10	15
15. Torpedo Musakola	9	15
16. Abokajarro	9	15
17. Manhattan Pippol	8	15
18. Tomahawk	8	15
19. Ekipo Aldeano	5	15

### PARTIDUAK

#### APRILAK 16, ZAPATUA. EPAILEAK

11:00: La Kuadrilla - Billy & The...	Saukelu
12:00: Saukelu S. - AT Celaya	Antolatzaile
13:00: H.L.B 108 - Torpedo Musa	Antolatz.

## KOPAKO FINALERDIAK, ASTEBURUAN

### LEHENENGO PARTIDUA LIGAN ATZERATUTAKOIA DA

Saukelu Scream taldeak bakarrik esan dezake ligan ondo ibiltzeaz gain Kopan ere finalerdietarako sailkatu dela. Urtean zehar talde erregularrenak izan direnek Kopan kale egin dute, eta sailkapenaren erditik behera dauden taldeak daude Kopako azken txanpan. Gainera, bihar jokatu dute jardunaldia oso parekatua izango da. AT Celayaren eta Saukeluren artean dago, sailkapenari begiratuta, alde handiena. Baina Zigorrolakoek ez dezatela lorik hartu, Uribe auzokoek ezustea eman dezakete-eta.

## KIROLAGENDA

### JOKATZEKOAK

#### SASKIBALOA

Mugarri Alkesa - Consmetal	Lehen maila. Zapata. 18:00. Iturripen.
Mugarri Alkesa - Barcelo Bidaiek	Juniorrak. Zapata. 12:00. Iturripen.
Hernani - Mugarri Alkesa	Kadeteak. Zapata. 16:30. Hernanin.

#### FUTBOLA

Mondra - Pasaia	Preferentea. Zapata. 16:30. Atxabalpen.
Mondra - Anaitasuna	Ohor. Gazteak. Zapata. 11:00. Atxabalpen.
Amaikak Bat - Arrasate	Gazteak. Domekan. 15:30. Zumaian.
Aldapetarrak - Arrasate	Ohor Kadet. Zapata. 12:00. Matigoxotegin.
Aitzgorri - Arrasate	Infantilak. Zapata. 11:00. Seguran.

#### Mondra - Intxaurdi

Emakumeak. Domekan. 16:00. Atxabalpen.

#### Arrasate - Aitzgorri

Alebinak. Domekan. 10:00. Aretxabaletan\*.

\*Alebinek Ibarra futbol zelaian jokatu dute.

#### ESKUBALOA

#### Deustuko Loiola - AGR Arrasate

Igoera fasea. Zapata. 17:30. Bilbon.

#### Urrietako - Arrasate

Bigarren territ. Kopa. Zapata. 17:45. Urrietan.

#### Gatz Museoa Jakion - Urola

Gazteak mut. Domekan. 10:00. Iturripen.

#### Arrasate - Aldaketa Hamasei

Gazteak neska. Domekan. 11:30. Iturripen.

#### PILOTA (ELGETAKO LAU T'ERDIKO TXAR)

#### Astiz - Uribarren (Arrasate)

23 urte azp. Zapata. 16:30. Aramaion.



## Paisaiak eta bestelako margolanak ikusgai, Elisabet Egurenen eskutik

IKER BARANDIARAN

Elisabet Eguren eibartarrak margolanen erakusketa jarri du Harresi aretoan. 40 bat lan batu ditu erakusketan, eta apirilaren 24ra arte ikusgai egongo da. Batez ere, Euskal Herriko paisaiak batu ditu, baina baita beste mota batzuetako lanak ere.

Aspaldi honetan Harresi aretoan hainbat margolariren erakusketak egiten dabiltza. Hilabete honetan Elisabet Eguren eibartarraren lanak daude erakusgai.

Egurenek urte asko darama margotzen. "Betidanik margotzen dut, beti izan dut oso gustuko, eta oraindik ez naiz aspertu", aitortu zigun. Aspaldi honetan, gainera, margotzea du ogibide. "Ahalegin hori egin gura nuen, eta saltzen ditudan margolanekin eta Eibarko Arrate Kultura Elkartean ematen ditudan eskolekin aurrera egiteko ahala irabazten dut".

### ARTE FIGURATIBOA, BATEZ ERE

Elisabet Eguren 50 bat margolan jarri ditu ikusgai Harresi aretoan. Arte figuratiboa egiten duela nabarmendu du, eta batez ere paisaiak batu ditu erakusketan. "Paisaiak oso gustuko ditut: batez ere, zuhaitzak, udazkeneko irudiak... Euskal Herriko hainbat herri eta menditan ibili naiz hango inguruak margotzen". Hortaz, Debarreneko, Durangaldeko eta beste hainbat lekutako inguruak margotu ditu.

2000n San Andres auzoko Toki Eder tabernan margolanen erakusketa jarri zuen eta oso harre-  
ra ona egin zioten. Horregatik, Arrasaten errepikatzea erabaki du. "Arrasaten jende asko bizi da, eta, gainera, gero eta margolari gehiago daude bertan. Badirudi arrasatearrek margolanak gustuko dituztela", azpimarratu zuen Eguren.

### GOGO ALDARTEAREN ARABERAKOAK

Elisabetek azaldutakoaren arabera, momentu bakoitzean duen gogoaldarteak eragin handia dauka margolanak egiteko aukeratzan dituen gaitetan. Hala ere, gehien margotzen duena loreak



IKER BARANDIARAN

Elisabet Eguren, batez ere, paisaiak jarri ditu ikusgai Harresi aretoan.

*Elisabet Eguren  
margotzea du  
ogibide: margolanak  
egiteaz gain, eskolak  
ematen ditu*

eta paisaiak dira. Bestalde, badi-  
tu bestelako lanak ere bai: hain  
zuzen ere, emakumezkoen gai-  
nekoak edota alegoriak ere bai.  
Esate baterako, *Gernika* izeneko  
lanean Batzar Etxea, zuhaitza eta  
dantzari jantzitako neskatila  
batzuk batu ditu.

*Euskal Herriko  
hainbat herri eta  
menditan ibilia da,  
hango paisaiak  
margotzen*

Estiloari dagokionez, lan  
gehienak figuratiboak diren  
arren, gardekiak (transparentzia)  
ere erabili izan ditu, eta ehun-  
durekin hainbat proba egin ditu.  
Horrez gain, udazkenaren eta  
sentimenduen gaineko bildumak  
egin ditu.

## Iban Zalduaren 'Itzalak' lanean oinarritutako ikuskizuna

I.B.

Eguren, hilaren 21ean, Iban Zalduak, Jabier Muguruzak eta Roberto Yabenek ipuinen irakurketa eta musika uztartuko dituzte *Itzalak* ikuskizunean. 19:30ean izango da, Monterongo berbalde aretoan.

Udal Liburutegiak urtero antolatzen du Liburuaren Egunearekin lotutako egitarau berezia. Aurten ere hala egin du. Aurreko astean ipuin kontaketa iragarri genituen, baina gauza gehiago daude.

Besteak beste, *Itzalak* izeneko ikuskizuna antolatu dute. Iban Zaldua idazleak joan den urtean Erein argitaletxearekin *Itzalak* izeneko liburua argitaratu zuen. Lan hori ipuinez osatuta dago. Liburua aurkezteko orduan, zerbait berezia egitea bururatu zitzaion. "Jabier Muguruza aspaldiko laguna dut eta banuen berarekin batera zerbait egiteko gogo. Proposamena egin nion, eta baiezkoa eman zidan".

Muguruza Roberto Yaben jazz musikariarekin harremanetan jarri zen, eta Zalduaren gidoietan oinarrituta ikuskizunerako musi-

ka idatzi eta moldatu zuten. Hala, ikuskizun bat egin zuten Amarako kultura etxean (Donostia). *Itzalak* liburuko eta bestelako ipuin batzuen irakurketa (Jabier Muguruzaren ipuin bat, barne) eta musika uztartu zituzten.

Horren ostean, Zalduak Donostiako Koruko Heras piano jotzailearekin beste bi emanaldi egin ditu. Hala ere, Arrasatera Muguruzarekin eta Yanenekin etorriko da.

### LITERATURA SOLASALDIK

Zaldua bera Udal Liburutegiko literatura solasaldien arduraduna da azkeneko bi ikasturteotan. "Oso esker oneko lana da. Irakurritakoa konpartitzea gustuko dut, eta ni neu ere asko ikasten nabil".

*Egurenkoa Zalduak,  
Muguruzak eta  
Yabenek ikuskizun  
hori egiten duten  
bigarren aldia da*

## Gaur, Cristina Sanchez harpa jotzailearen emanaldia

I.B.

Apirileko 1. Musikaldiaren barruan, beste kontzertu bat egingo dute gaur, egubakoitza: Cristina Sanchez harpa jotzaile San Juan Bataiatzailearen elizan izango da. Biharkoa, bertan behera gelditu da.

Apirileko 1. Musikaldia oraindik hasi besterik ez da egin. Gaur, egubakoitza, Bilboko Cristina Sanchez harpa jotzaileak kontzertua egingo du San Juan Bataiatzailearen elizan, 20:30ean. Sarrera doan izango da.

Sanchezek hainbat sari garrantzitsu jaso ditu, eta 1986an Bilboko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan harpa irakasle postua lortu zuen. Horrez gain, Syl-

via Gutierrez gitarra jotzailearekin hainbat disko kaleratu ditu, besteak beste. Kontzertua Aita Madinaren *Sonata vasca*, *Suite para arpa* eta *Suite infantil para arpa*-n eta Guridiren *Zortziko zaharra*-n oinarrituko du.

### HARI LAUKOTEARENA, BERTAN BEHERA

Biharko, zapatua, Espainiako Estatu eta atzerriko musikariek osatutako Cadem Hari Laukotearen kontzertua iragarri zuten. Amaia antzokian egin behar zuten. Kontua da musikarietako bat min hartuta dagoela. Hari laukoteko lehenengo biolin jotzaile Catalin Bucataru errumaniarrak tendinitisa du. Laukoteak ezin izan du kontzertua modu egokian egiteko ordezkorik aurkitu, eta bertan behera utzi dute.

## Muruko antena etxetik ikusten baduzu, banda zabaleko eta kablerik gabeko internet zerbitzua izan dezakezu!

Horrela, hauek guztiak egin ahal izango dituzu etxetik bertatik herrira hurbildu gabe:

- Goiena.net: bailarako berriak, blog zerbitzuak... - Banketxeko tramiteak... - Udalarekin kontsultak...
- Hezkuntza: matrikulazioak, noten kontsulta... - Aisialdia: ekitaldietarako sarrerak... - Erosketak interneten...

Informazio gehiagorako, deitu telefono honetara: 943 79 81 91 (Kelnara)

**kelnara**  
banda zabala

**Goiena.net**  
Debagoieneko ataria Interneten

Seinalea jaso dezaketan auzoak: **Aramaio** (Untzilla, Azkoaga, Barajuen, Gureia, Zabola, Arexola, Etxaguen eta Gantzaga). **Aretxabaleta**: Aozaratza, Oro, Larrino, Izurieta, Galartza, Arkarazo eta Arenaza. **Eskoriatza**: Apotzaga, Mendiola, Bolibar eta Gellao. **Arrasate**: Udala, Bedoña, Garagartza eta Gesalibar. **Leintz-Gatzaga**.

## BOTEPRONTUEN

## Jesus Romero

## ANBOTOSTE TABERNA

XABIER URTZELAI

Herrixen ez dau jatetxe begetarianorik, eta Jesus animau da holako bat zabalketan. Produkto naturalen alde egin dau apostue, eta bidezko merkataritzak arduraketan dau: "Lurra lantzen dauenak be irabazixek biher dau, eta euren produktuek daukou hamen, lehen maillakuek".

Ez dot pentsetan hamen inguruen holakorik dauenik.

Ez. Kapitaletan badauz jatetxe begetarianuek, baiñe ibarrien ez. Eta bazan ordue hamen holako bat eukittek.

## Zelan animau zitzen?

Aspaldi hasi nitzen garbi jatetxe arduraketan, eta afiziño moduen hasi zana lanbide billakatu da.

Produkto biologikuei inportantzia emuten dutzezu.

Bai, bai. Garbi euki biher da gorputzek eskertu egiten dauela produkto biologikuek jatie: berdurak, zerealak, frutak... Eta holako produktuekin egiten dou guk lan. Jentiek jakin biher dau hona etorten danien lehen maillako produktuek jan biher dauela.

Hamen ez dauketzue ez okelarik ezta arraiñik be.

Bai eta ez. Animalixetatik datozen okelak, adibidez, ez. Baiñe, berdurak egindako okelie edo lentejekin egindako hanburgesak daukou, adibidez. Eta ez, ez dou arraiñik emuten.

## Eta errezetak, nundik?

Kurso askotan egon gare, eta horrekin batera, sukaldien lanien nabillien gauza diferentiek probetan dot. Gaiñera, beste leku batzuetara juen garenien be fijau egin gare ze emuten dauen.

Pentsetan dot ohittute ez dauenandako ez dala komeniko plato oso berezixek eskaketie.

Ez pentsau. Akaso, egon leike gustoren bat berezixe dana, baiñe jentie gustora geraketan da. Ez pentsau atzera botaten dauen gauzak emuten dounik.

## Zein da zeuon espezialidadie?

Jentiei asko gustetan jako arrozakin egindako bolatxuek; sojiek



X.U.

*"Jentiek argi euki biher dau hona etorteko ez dauela zertan begetarianue izen"*

kin eta sesamuekin frijidute dauz, eta arrakastie daukie. Esan biher da, baita be, bokadilluetako ogixe be berezixe daukoule. Pitakin egiten dou ogixe, eta jentie engan-txaute geraketan da.

## Zelan egiten dozu lan?

Martitzenetik eguakotxera menuek emuten dou, eta eguen gabetik zapatu gabera arte karta berezixekin egiten dou lan. Horrekin batera, bokadilluek, ensaladak, plato konbinauek... Domeketan eta astelehenetan zerrau egiten dou.

Bixarko menue? (Eguazte-na)

Lelengo platue: ensalada buffeta, edo zumue, edo zanahori-

*"Animalixen okelarik ez dou emuten, baiñe jentiek probau egin biherko leuke okela begetala"*

xa erregosixe itsasoko espagetixekin eta seitanakin. Bigarrenera pasau aurretik kalabaza sopie emungo dou, eta bigarren platuiek izengo die: arroza piperrekin eta porruuekin, edo lentejadun hanburgesak, edo tofu erregosixe. Eta postrerako: mahaspasiekin, abniekin eta sagarrakin egindako pastela, edo sojakin egindako jogurt naturala, edo frutiek.

Uda partien terrazie be euki-ko dozu.

Bai, eta udarako aproposak dien produktuek emungo dou: zumuek, ensaladak... Coca-cola berezi bat be badaukou; eta, bidezko merkataritzako elkartietako infusiñuek eta kafiek daukou.

## NIREBIDAIAHURA/ Julia Monge

Myanmar-era (lehenago Birmania) / 2004ko azaroan

Myanmarrera egindako bidaiaren azken kapitulu duzue hau. Tanaka kremaren berri eman ez utzi zintuztegun joan den astean, eta malariari aurre egiteko botika zela esateaz gain, apaingarri moduan erabiltzen zutela ere aurreratu zigun Juliak. Aipagarriena da, baina, emakumezkoak eta gizonzkoak apaintzen direla tanaka kremarekin; hemen bai-no aurreratuagoak, arlo horretan behintzat.

Popo menditik Pindayan dagoen budaren irudiz betetako kobazulora joan ziren, eta handik, hegazkinez, Mengtung-erako bidea hartu zuten: "Lurralde horretara joateko beharrezkoa da baimen berezia izatea. Hango etniak ikustera joan ginen, eta oso leku berezia da, han oso aurrerapen txikiak dituztelako. Orain dela urte asko bizi ziren moduan bizi dira orain ere. Han ez nuen argazkirik atera, zirku batera joan eta argazkiak ateratzen hastea bezala izango zela iruditu zitzaidan, eta ez nuen gura horrelakorik. Ahaleginu ginen, baita ere, gure presentziak euren egunerokoan ahalik eta eragin txikien izaten. Opariak eraman genizkien, baina xaboa eta umeendako gailetak baino ez. Turismoak gora egiten duenean, lurralde horretako nortasuna aldatu egingo dugu, beste leku askotan gertatu den moduan".

Inle lakura joateari kale egin barik, hango lasaitasunarekin deskantsua hartu ahal izan zuten: "Berezitasunetako bat da ur gainean lursailak egin eta han landatzen dituztela hainbat produktu. Ikustekoa izan behar du landaketa prozesua nola egiten duten, eta baita ere uzta nola jasotzen duten. Bitxia da, era berean, lakua inguruan bizi diren etniek egiten duten merkata. Hantxe elkartzan dira guztiak, produktuak saldu edo trukean egiteko". Halaxe amaituko dugu orain arte inoiz egon barik geunden Myanmarrerako bidai. Hasi zaigu mundua txiki geratzen, paper gainean bada ere.



*"Gurago izan nuen Mengtung-en erretraturik ez atera"*

XABIER URTZELAI



"Argazkiko emakumeek loto lorearekin haria egiten zuten".

# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Espezialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

ileapaindegia  
peluqueria

Gorka

Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00  
Larunbatetan 08.00-14.00  
Ferrerias 35 - 943 77 13 78  
ARRASATE  
Bainuetxe 10 - 943 79 70 25  
ARETXABALETA

# ad Ibabe

## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



## ARRASATEKO ATLETISMO TALDEKOEK, GERO ETA HARROBI SENDOAGOA

Bistan da Arrasateko Atletismo Taldekoak gogotsu dabiltzala lanean, gero eta neska-mutiko gehiago dabilta-eta herrian atletismoa egiten, eta emaitza onak lortuz, gainera. Joan den asteburuan, adibidez, 12 urteko Lore Mar-ek zilarrezko domina irabazi zuen Gipuzkoako Txapelketan. Maialen Axpe, berriz, zazpigarrena izan zen. Infantiletan, Iñigo Uribarren bederatzigarrena izan zen, eta nesketan, Oihane Urtzelaik zortzigarren postua eskuratu zuen. Taldean gero eta neska gehiago dago, egun, 16 lasterkari dabilta entrenatzen.




## ROMAN LOPEZEK MUGAK GAINDITU DITU; BERGARAN DABIL MUSEAN IRAKASTEN

Arrasaten eskola ederra dauka Roman Lopezek, aspaldi hasi zen-eta herriko emakume nagusiei musean egiten irakasten. Arrasatekoak, baina, onartu egin du Bergaratik jaso duen gonbidapena, eta San Joxepeko zaharren etxean dabil egunotan, hango emakumei karta joko hori irakasten. Bistan da kartetan ondo egiteko zortea baino gehiago behar dela, eta mus jokoak exijitzen dituen trebetasunak soberan ei dituzte emakumeek. Argazkian, Roman Bergarako emakume koadrilarekin.



## IKASLE GUTXI HERRI PROBETAN, ETA AZTERKETEN AITZAKIAK EZ DU BALIO

Eguraldiak lagunduta, eguazten arratsaldean egin zituzten unibertsitateen arteko herri kiroleko proben kanporaketak. Guztira, hamar lagunez osatutako bost talde elkartu ziren Iturripen, eta giro polita izan bazen ere, antolatzaileak penaz zeuden, horrenbeste ikasle dauden unibertsitatean jendea ez delako animatzen. Eta ez da ulergarria, saria ederra da-eta. Iturripen egin zituzten probetan abilezia handiena erakutsi zutenek apirilaren 29an Donostian egingo duten finalerako sailkatu ziren. Saria: sei mila euroko balioa duen bidai.



## ARRASATEKO JUDO TALDEAK ATE IREKIEN JARDUNALDIA EGINGO DU BIHAR

Bihar, zapatua, Arrasateko Judo Taldeak ate irekien jardunaldia egingo du Musakola-ko kiroldegian (11:00etan). Hala, kirol hori ezagutzeko interesa daukaten gazte eta guraso guztiak gonbidatuta daude. Goiko erretratua joan den astean atera zuten, Kalagorri (Errioxa) egin zuten judo txapelketan. Arrasateko hamaika gaztetxok hartu zuten esku, eta guztiak geratu ziren lehenengo hiru postuen artean. Hori bai, bakoitza bere kategorian lehiatu zen.



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)

Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebeldun hizkiak

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

## ZAHARRENETXETIK



IKER BARANDIARAN

Udaltzaingoaren eta erretiratuen elkarten esanetan, berbaldi horiek oso lagungarriak izango dira.

## Erretiratuendako bide-segurtasunaren gaineko berbaldiak, Udaltzaingoaren eskutik

IKER BARANDIARAN

Udaltzaingoak bide-segurtasunaren gaineko hainbat berbaldi emango ditu herriko erretiratu elkarteetan. Gaurtik, egubakoitza, maiatzaren 8ra arte egingo dituzte, Toki Argin, Uri barrin, Abaroan eta Musakolan.

Aspaldian Ertzaintza arduratu da bi edo hiru urtean behin eskoletan bide-segurtasunaren gaineko jardunaldiak egiteaz. Hainbat ikastetxek jardunaldi horiek urtero egiteko premia ikusi zuten, eta Arrasateko Udaltzaingoak ardura hori hartzea erabaki zuen.

### ARRISKU HANDIAGO DUTEN TALDEEI

Are gehiago, Udaltzaingoa hasi zen ikastetxeetako ume eta gaztetxoek azaldu beharreko kontuak prestatzen eta konturatu zen bide-segurtasunarekin lotuta arrisku handia duten beste tal-

de batzuk ere badaudela. Hain zuzen ere, Udaltzaingoaren esanetan, umeak eta erretiratuak dira arrisku handien izan dezaketanak. "Berezitasun fisiko-psikikoak dituzte. Umeek txikiagoak direnez ez dute errepidea ondo ikusten, eta gainera geldiezina goak dira. Erretiratu batzuek, berriz, psikomotrizitate arazoak izan ditzakete eta baita ere erreflexu eta ikusmen urriagoak".

Arrazoi horregatik, Udaltzaingoak erabaki du berbaldi horiek eskoletan egiteaz gain,

*Udaltzaingoaren esanetan, umeak eta erretiratuak dira arrisku handien duten taldeak*

erretiratuen elkarteetan ere azalpenak ematea. Horretarako, elkarteetako arduradunekin harremanetan jarri dira, eta horiek oso harrera ona egin diote ekimenari. Hortaz, egutegiak zehaztu dituzte.

Hiru berbaldi emango dituzte: Oinezkoa beti espaloitik; Oinezkoa errepidea gurutzatzean; eta Gidaria, segurtasun-uhala eta arreta. Toki Argin honako egunetan emango dituzte: gaur, egubakoitza; hilaren 22an; eta hilaren 29an. Hirurak

*Proiektu pilotua da, urtero bide-segurtasunaren gaineko azalpenak emateko*

16:30ean. Uribarriko elkarteetan, astelehenean, hilaren 18an; 25ean; eta maiatzaren 9an, 17:00etan. Abaroan, martitzenean, hilaren 19an; hilaren 25ean; eta maiatzaren 9an, 18:30ean. Azkenik, Musakolako elkarteetan, hilaren 20an; hilaren 27an; eta maiatzaren 4an, 17:00etan.

### EUSKARAZ ZEIN GAZTELERAZ

Berbaldiak emateko materiala dagoeneko prest daukate. Bideo batzuk Eusko Jaurlaritzatik eskuratu dituzte. Horrez gain, Udaltzaingoak beste txosten batzuk sortu ditu.

Berbaldi bakoitza hasteko, gaiaekin lotutako bideo bat emango dute, eta horren ostean erretiratuek euren iritzia emanango dituzte.

Udaltzaingoaren esanetan, "ez diegu legediaren gainean berba egin behar. Izan dezaketen arriskuaz jabetzen laguntzea gura dugu".

## LABUR

### Erretiratuendako ortuen proiektua idatzita dago

Udaleko Ingurumen Sailak aditzera eman digu LKS enpresak erretiratuendako ortuen proiektua idatzi duela, eta Udalak 11.000 euro ordainduko dizkiola.

Udalak 61 ortu egin gura ditu. Bakoitzak 80 metro koadro izango ditu. Ortu-eremu guztia hesiz inguratuta egongo da. Ereku horren sarreran egurrezko txabola bat jarriko dute. 350 metro koadro izango ditu. Horren barruan, bi dutxa, aldatzeko eta erremintak gordetzeko armairuak, bulego bat -nekazaritza ekologikoaren gaineko berbaldiak egingo dituen arduradunarendako- eta egoteko gela bat jarriko dituzte.

Erretiratuez gain, Ongizate Sailaren laguntza behar duten herritarrek ere erabiliko dituzte ortuok. Aldundiarekin harremanetan daude laguntzak eskuratzeko.

### Toki Argi elkarteak Lourdesera bidaiak antolatu du

Hilaren 30ean irtengo dira eta maiatzaren 1ean izango dira bueltan. Astelehenean zabaldu zuten izenematea. Elkarteetako bazkideak ez direnak ere joan daitezke. Interesatuak 75 euro ordaindu beharko dituzte. Lau autobus eramango dituzte, eta ostatua eta jatorriak barne daude.

### Abaroak Burgosera txangoa egingo du eguaztenean

Abaroa erretiratuen elkarteak Burgosera txangoa antolatu du eguaztenerako, hilaren 20rako. Hirira heldu aurretik, hamarretakoa egingo dute. Katedrala bisitatuko dute, eta inguruak ikusteko denbora izango dute. Horren ostean, Don Nuño jatorriaren bazkalduko dute. Eman izena lehenbailehen.

**KONTRATAK**  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**JOSE LUIS ABUIN**

kiromasajista - naturopata - akupuntorea



**Lokal berria :**

Musakolako Udal Kiroldgia - ARRASATE - 943 77 16 77

San Josepe 10 behea D - ARRASATE - 943 77 01 33

20 urte baino gehiago zuen artean

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zer dabilta botatzen ikusten duzuen argazki horretan?  
Arrastoa: lantegi bat zen, 1997an bota zuten

**Super BM**

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Onak arraultzak**  
L kategoria. 63-73 g Dozena

**0,82€** 136 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**JOSEBA GARATE** erendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Joseba!  
Galderen erantzun zuzena:  
**El Rocío.**

ARRASATEKO HISTORIA

Pedro Biteriren eskuzabaltasunaren gainean

'ARRASATE, BITERIRI OMENALDIA' LIBURUA


**M**akinatxo bat aldiz berba egin dugu zela edo hala Pedro Biteri Arana filantropoaren gainean. Baina oso gutxitan kontatu dugu irakaskuntzaren babesle izan zen hark egindakoen gainean. Beraz, horixe izango dugu segidan berbagai.

Pedro Biteriren gaineko lau datu esatearren, 1833ko uztailearen 18an jaiotzen, Iturriotz kaleko 25. zenbakian. Izen osoa Pedro Maximino zuen. Haren aitaren eta anaia-aren heriotzaren ondoren, aberastasun handi baten jabe egin zen; eta haren zati handi bat eskolak eraikitzeko eta eskola haiek hornitzeko erabili zuen gizonak. Ez ziren eta ez dira halako asko izango munduan.

**BITERIK EMANDAKOAK**

Sortu zuen lehenengo eskola Arrasatekoa izan zen. 123.000 pezeta gastatu zituen. Are gehiago, kopuru hori nahikoa ez iruditu eta 200.000 pezetako emaria egin zuen, irakasten zebiltzan irakasleei 2.000 pezetako soldata emateko. 1902an inauguratu zituzten Biteri Eskolak.

Ondorengo urteetan, Arrasate moduan, emariak egin zituen



UBANE MADERA

Grupo San Juanen dago Pedro Biteriren oroitarria, Alfonso X.a Jakintsua plazan.

eskolak eraikitzeko. Hemen zerrenda (datuak pezetatan daude, -iturria antzinakoa delako):

- Hondarribiari: 82.906 pezeta;
- Errenteriari: 65.385 pezeta;
- Pasai Donibane: 65.385 pezeta;
- Pasai Antxori: 28.738 pezeta;
- Irun: 80.000 pezeta;

*Lortu zuen aberastasun handiaren zati bat eskolak eraikitzeko erabili zuen*

- Donostiari: 65.000 pezeta;
- Aretxabaletari: 38.000 pezeta;
- Hernaniri: 48.000 pezeta.
- Urnietari: 20.000 pezeta.

**BESTELAKO EKIMENAK**

Irakaskuntzaz gainera, bestelako ekimenak ere diruz lagundu

zituen Biteri jaunak. Esaterako, Arrasaten antzinako azoka plaza eraiki zuten haren aberastasunaren kontura; horrez gainera, oraindik ere tente-tente dagoen Zaldibar pilotalekuaren eraikuntzan ere parte hartu zuen; Esteban de Garibairi omenaldi moduko bat egiteko asmoarekin, udal-epaitegi bat eraikitzea agindu zuen, haren etxearen hondarretan. Eta gainera, Aladren arkitekto entzutetsuaren zuzendaritzapean eskola-eliza eraikitzen zuten bitartean, herria lorategi ederrez janzten, eliza berriaren eraikuntza proiektatzen eta hala-koetan ematen zuten denbora Pedro Biterik.

Lehen fundazioa egin eta sei urte geroago hil zen Pedro Biteri, Miarrizten, 1908ko maiatzaren 22aren egunsentian. Hil eta bost egunera, Arrasateko Udalak erabaki zuen haren oroimena irau-narazteko oroitarri bat egitea. Gasteizko Pike, Rius eta Molina jaun-ek adjudikatu zien lana, 18.607,38 pezetako aurrekontuarekin. 1911n inauguratu zuten oroitarria, Biteri Eskolen aurrean; gero, 1967an harriz harri desmuntatu zuten eta gordeta izan zuten harik eta 1974an Alfonso X.a Jakintsua plazan ipini arte, Grupo San Juanen. Han dago gaur egunean.

# Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a

376. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Pedro Mari Zubizarreta izendatu dute Basotxo Erretiratuaren Elkartearen presidente

MIRARI ALTUBE

Zuzendaritza batzordea aldatu du Basotxo Erretiratuaren Elkarteak. Lau kidek utzi dute batzordea, eta beste lau sartu dira. Presidente ere aldatu dute: Pedro Mari Zubizarreta da orain. Batzordea hasita dago lanean, eta urteko plana egingo du datozen asteotan.

Urtero aldatzen dute batzordea Basotxon. Lau kide ateratzen dira, eta lau sartu. Oraingoan presidentea ere aldatu dute.

### LAU KIDE BERRI

Basotxo Erretiratuaren Elkarteak 725 bazkide ditu. Zuzendaritza batzordea dute ekintzak antolatu eta elkarte zuzentzeko. Batzordeko kideak bi urterako hautatzen dituzte. Urtero uzten dute lau lagunek batzordea, eta lau berri sartzen dira. Hala, jarraipena ematen diote hasitako lanari, eta hasiberriek badaukate zeinekin ikasi.

Batzordea utzi dutenak hauek izan dira: presidente lanak egin dituen Emiliano Altube, German Gonzalez, Honorino Marcos eta Antonio Villar. Hauen ordez honakoak hautatu dituzte: Jose Ramon Rodriguez, Javier Urtzelai, Lourdes Ajuria eta Maria Teresa Kortabarria. Azken urteotan ez



Bizitzako ezbeharren aurrean zelá jokatu jakiteko erretiratu asko hurreratu ziren hitzaldira, tartean Pedro Mari Zubizarreta.

da egon emakumerik batzordean, eta aurten lortu dute sartzea.

### AUKERAKETA SISTEMA

Garai baten hauteskundeak egiten zituzten batzordea aukeratzeko. Bazkide guztiak izaten ziren hautagai eta boto gehien lortzen zituztenak sartzen ziren. Bazkideak, baina, ez ziren oso konfor-

*Andoni Antxia  
izango da idazkaria  
eta Jose Ramon  
Rodriguez  
presidenteordea*

me izaten nahi eta nahi ez sartu behar izaten zutelako batzordean. Horregatik aukeraketa egiteko sistema aldatzea erabaki zuten. Orain, batzordeko kideek eurek aukeratzen dituzte izenak, eta hautagaiei galdetzen diete elkartean lan egin gura duten.

Batzordeak egin du dagoeneko lehenengo batzarra, eta bana-

tu dituzte karguak. Pedro Mari Zubizarreta izango da presidentea, eta Andoni Antxia idazkaria. Jose Ramon Rodriguezek, ostera, presidenteorde eta idazkariorde lanak egingo ditu. Diruzaina Antonio Diez da azken urteotan bezala.

### BIDAIAK, IBILALDIAK ETA HITZALDIAK

Behin batzordea osatuta, urteko kudeaketa plana egin behar dute. Hala, hemendik aurrerako ekintzak antolatuko dituzte datozen asteotan. Bidaia, mendi ibilaldiak, egun bereziak, hitzaldiak eta beste horrenbeste ekintza egingo dituzte. "Orain, maiatzean, Beldormera joateko asmoa genukan, baina ez ziren behar beste lagun animatu eta bertan behera utzi dugu bidaia", dio Antonio Diez diruzainak, "egun bateko bidaia antolatuko ditugu orain. Iratxera esaterako, jendeak nahitago ditu-eta".

Eguaztenean, bestalde, hitzaldia izan zuten elkartean. Bizitzako ezbeharren aurrean zelá jokatu azaldu zien Xabier Arriola, eta erretiratu asko gerturatu ziren hitzaldira. Mendi ibilaldiak egitea ere gustuko dute, eta domekan, esaterako Kilometroak 2005eko lan taldeak Eskoriatzan antolatu duen ibilaldira 12 lagun joango dira.

## Gobernu batzordea utziko duen edo ez argitzeko eskatu diote Aralarri

M.A.

Eskubide demokratikoen aldeko aldarrikapena egin zuen Aretxa plataformak astelehenean. Bide batez, Udalean ezin dutela parte hartu zinegotziek gogorarazi zuen, eta Aralarri euren jarrera argitzeko eskatu.

Ideologia dela eta baztertzea eta hauteskundeetan parte hartzeko gaitasun barik uztea oso larritzat jo zuten Aretxa plataformako Josu Atxaga eta Iñaki Iturrik

astelehenean egindako prentsaurrekoan. Hala, herritar guztiak hauteskundeetan parte hartzearen aldeko aldarrikapena egin zuten. Salatu zuten, gainera, hautagai izateko eskubidea kentzeko Espainiako Gobernuak iragarritako asmoa, eta mehatxua ez dezala bete eskatu zuten.

### ARALARRI ERANTZUNA

Joan zen astean Aralarriko zinegotziek emandako azalpenei erantzun gura izan zieten Aretxako kideek. Aretxaren gaia

erabili egin dutela hauteskundeetarako adierazi zuen Josu Atxagak, nahiz eta Aralarriko kontrakoa adierazi. Aretxari Udalean lanik egiten ez badiote uzten gobernu batzordean ez duela jarraituko adierazi badu beti Aralarrirek, lehenbailehen argitzeko jarrera eskatu zieten Aretxako kideek. Bukatzeko bi urte pasatu eta gero trapu zaharrak ateratzen hasteak ez duela zentzurik esan zuen Josuk, eta aurrera begira egin behar dutela lan gaineratu.



Josu Atxaga eta Iñaki Iturri ilegalizazioaren aurka azaldu ziren.

**FARMAZIENTXANDA**

ZAPATUA, 16  
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22  
DOMEKA, 17  
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

**TELEFONOAK**

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirori etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Amasate . 943 79 14 39

LARRIALDIK	
SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Zapatuetan: 18:30  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: LARRINO**  
Ez dago mezarik.  
**MENDIOLA**  
Domeketan: 11:30 (Otoitzaldia bakarrik)  
**GELLAO**  
Ez dago mezarik.

**ELKARRIZKETA**

**DAMASO ZUAZUA/KARMELDARRA**

*“Hurrengo Aita Santua zergatik ez hautatu Hirugarren Mundukoa?”*

ARRASATE IRRATIA/MIRARI ALTUBE

**E**rroman bizi da azken urteotan Damaso Zuazua aretxabaletarra. Han eta hemen ibilitakoa da, eta orain ere joaten da, misioetako ordezkaria da-eta. Aita Santuaren heriotza bertatik bertara bizi izan zuen joan zen astean.

**Bisitari asko izan ditu Erromak. Lasaitu da egoera?**

Oraindik milioi eta erdi kanpotar ditugu hirian, baina hiru milioi izan ditugu. Euskaldun gazte batzuekin ere egin nuen tril, bilbotarrak ziren.

**Zela gogoratzen duzu Aita Santua hil zen eguna?**

Kanpoan nengoen, Florentzia inguruan, eta han jakin nituen lehenengo berriak; hil eta hurrengo egunerako etorri nintzen. Gero hiletarako sarrera lortu nuen eta plazan izan nintzen meza jarraitzen.

**Ezagutu zenuen Joan Paulo II.a?**

Bai, hainbat argazki ditut berarekin berbetan aterata. Garairik onenak azken urteetakoak izan dira neuretako. Bidaia asko egin eta ekintza askotan ibilitakoa zen, baina azkenean gaitasuna heldu zitzaion. Gaixoaldia onartu egin behar da apaltasunez, adorez eta zintotasunez, eta horretan testigantza handia eman dio munduari.


**Beti jende artean ikusten genuen, azkenetan ere bai.**

Bai, jendezalea zen oso; jende artean ibiltzen zen pozik. Arriskuen beldur barik, nekatzeko beldur barik beti jende artean.

**Orain kanonizatze eskatzen duten ahotsak entzun ditugu.**

Bai, baina hori ez da garrantzitsua. Burua garbi izan zuen beti munduari zer egin behar zuen esateko, sekula ez isiltzeko kontzientzia izan zuen. Hor dago bere irakatsirik onena.

**Hurrengo zelako Aita Santua gurako zenuke?**



ARTXIBOA

*“Gaixoaldia onartu egin behar da eta horretan testigantza handia eman dio munduari”*

Ez dakit zein izango den, eta jakiteko gogo handirik ere ez daukat. Etorriko da, eta nire ustez agudo, hirugarren egunerako edukiko dugu. Zergatik ez hautatu Hirugarren Mundukoa? Aukeraketa-baldintza bakoa izan dadila. Erabakitze eskubidea, bai-

*“Agudo hautatuko dute hurrengo, hirugarren egunerako, nik uste, edukiko dugula”*

na, 117 kardinalak dute, baina bi ez dira etorriko gaixo daudelako.

**Erroman bizi zara, baina ez zara askorik egoten bertan.**

Misioen ardura daukat eta hara eta hona ibiltzen naiz. Letonia, Rigara, joango naiz orain, gero Kongora, eta Siberiara ere bai.

**LABUR**

**‘Arrakalak’ ikuskizuna gaur, udaletxe zaharrean**

Bihotz Bakartien Klubaren eskutik eta Loramendi EEK antolatuta *Arrakalak* ikuskizuna eskainiko dute gaur, egubakoitza, 22:30ean. Gotzon Barandiaranen poemek eta Arte Ederretako ikasleen animaziozko irudiek osatutako ikuskizuna da. Udaletxe zaharrean izango da.

**Bertso afaria egingo dute bihar, zapatua, Larrinoko elkarte**

Bihar, zapatua, bertso afaria egingo dute Larrino auzoko elkarteak. Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluz bertsolariak izango dituzte lagun afal orduan hurreratu direnek. Dagoeneko 70 lagunek eman du izena; hortaz, lepo egongo da elkarte, eta giro bikaina sortuko dute.

**Eskualdeko kontuak kontatuko ditu Imanol Biainek**

Eskualdeko kontuak kontatuzera etorriko da Imanol Biain oñatiarra. Loramendi EEK urtarrilerako antolatu zuen ekitaldia, baina elurraren ondorioz bertan behera utzi behar izan zuten orduan. Eguenean, apirilak 17, 19:00etan izango da berbaldia, udaletxe zaharrean.

**Zabalik mekanika ikastaroan izena emateko epea**

Automobilien mekanika ikastaroa antolatu du Loramendi EEK. Aitor Atxagak emango ditu eskolak apirilaren 18, 19 eta 20an Aretxabaletako institutuan. Gurpilak zela aldatu autoei eta beste horrenbeste kontu azalduko ditu. Izena emateko Loramendi EEra joan behar dute interesatuek.

**Hirusta**  
Jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

*Jon Díaz*

**Harakina**

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**ZARAIA**

**taberna**

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

# Lehenengo partidua irabazi zuten alebinek Gipuzkoako Txapelketan

M.A.

Alebinak Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten hasi dira, eta Gipuzkoako talde onenak izango dituzte aurkari. Lengokoak taldea izan zuten aurrez aurre joan zen astean, eta 3-2 irabazi zioten. Domekan, Villabona taldea hartuko dute Ibarra futbol zelaietan.

Joaneko eta itzuliko partiduz osatutako liga jokatu dute hurrengo asteotan alebinek. Lau talderen arteko liga izango da: Antiguoko, Villabona, Lengokoak eta UDA. Gipuzkoako eskualde bakoitzeko txapeldunak dira guztiak.


Joan zen astean Lengokoak taldeari irabazi zioten aretxabaletarrek, 3-2. Hala ere, ez ziren gustura geratu bigarren gola denbora pasatu ostean sartu zirelako. 11 eta 12 urte dituzten



Denboraldi bikaina egin eta eskualdeko txapeldunak izan ziren alebinak.

mutikoen denboraldi bikaina egin dute, eta eskualdeko txapeldun geratu ziren martxoan.

Orain Gipuzkoako txapeldun izateko aukera daukate, eta ez dira gaizki hasi.



## Aretxabaletar bi Suitzako eski maratoian

Suitzako St. Moritz herrian Engadin Skimarathon izeneko 87. maratoia egin zuten. 12 mila eskiatzaile elkartu ziren proban, tartean Alberto eta Xabier Arenatza anaiak. 14 gradu zero azpitik izan zituzten, baina giro beroa, eta gustura ibili ziren. /M.A.

## LABUR

### Oion eta Uriartek Udaberri Pilota Txapelketako finala jokatu dute gaur, 19:00etan, Zumaian

Udaberri Pilota Txapelketako finala jokatu dute Oion eta Uriartek, gaur, egubakoitza, Zumaian. Villabonako Beharza elkartereko pilotariak izango dituzte aurrez aurre. Txapelketa polita jokatu dute Oion eta Uriartek; joan zen astean, esate-

rako, Antzuolako bikotea garaitu zuten, 22-13. Gaur, txapeldunak izateko aukera izango dute.

Altzola eta Lasagabasterrek, ostera, galdu egin zuten txapelketako finalerdia. Azkoitiarrak izan zituzten aurkari, eta 22-11 irabazi zieten.

### Preferenteko taldea ezin da lo gelditu

Sailkapeneko 15. postuan dago UDAko preferenteko taldea, eta hiru talde daude 34 punturekin berdinduta. Zazpi aste falta dira liga bukatzeko, eta gogoz ekin beharko diote lanari zuloan sar ez daitezten. Hurrengo aurkaria Beti Gazte izango du UDAk.

## PARTIDUAK

**FUTBOLA**  
Beti Gazte-UDA  
Preferentea.  
Domeka. Lesaka.  
**UDA-Martutene**  
Ohorezko gazteak.  
Zapatua. 17:30. Ibarra.  
**UDA-Billabona**  
Alebinak.  
Domeka. 12:15. Ibarra.  
**PILOTA**  
Bergara-Aretxab.  
Egubakoitza. 19:30. Bergara.

## EMAITZAK

**FUTBOLA**  
UDA 0 Mondra 0  
Preferentea.  
**Union Txiki 3 UDA 0**  
Ohorezko gazteak.  
**UDA/Arizm. 2 Amara Berri 1**  
Lehen mailako gazteak.  
**UDA/Arizm. 2 Antoniano 2**  
Lehen mailako kadeteak.  
**Añorga 4 UDA/Arizm. 0**  
Bigarren mailako kadeteak.  
**Lengokoak 2 UDA/Arizm. 2**  
Infantil ohorezko mailak.

**UDA 3 Lengokoak 2**  
Alebinak.  
**Luberri 3 Almen/UDA 0**  
Emakumezkoen liga (igoera).  
**Antzuola 0 Almen/UDA 3**  
Emakumeen F-8 liga (kopal).  
**PILOTA**  
Udaberriko Pilota Txapelketa.  
**Azkoitia 22-Aretxab. 11**  
Lehen mailako nagusiak.  
**Antzuola 13-Aretxab. 22**  
Bigarren mailako nagusiak.

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**

**BASABE**

**jatetxea**

Basabe bidea z/g  
Tel.: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

**Iber**

★ Loteria ★  
✿ Paper denda ✿  
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

**JAUSQIO OSTATUA**

Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61

**ORLYA**

Herriko plaza z/g ARETXABALETA

**Mobiliario ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**Matikua**  
**jatetxea**

Azatta auzoa  
ARETXABALETA  
943 79 16 68

**J.J. IRURE**

URA GASA KALEFAKZIOA

MITARTE 15  
ARETXABALETA

943 793 187




## ATREBENTZIAEZPADA/ Aitte Santuen gaiñeko kontue larrei puztu daue? Zein izengo da hurrengue?



**ANTONIO ROMERO**  
Langillie



**MAITE ZUBILLAGA**  
Langillie



**JABI GARCIA**  
Langillie



**JAIONE VITORIA**  
Langillie



**PEDRO AZKARGORTA**  
Langillie



**AMAIA ALTUBE**  
Langillie

Ez dot uste. Bakotzak bere ikuspuntue eukiko dau, eta neure ustien komunikabidiek emun dauena bere neurriren egon da. Aitte Santu barrixe? Ez dauket auke-raketa-rik egindde.

Bai, larrei izen da hainbeste egunien emutie telebisiñuen, haibeste jente mobidutie... Aitte Santue inportantie izengo zan, baiñe neurri batekin. Ez dakit zein jarriko dauen oin.


Bai, Polonian egotie tokau jaten hil osteko egunetan, eta larreikue izen zan han. Fan zan astien ondiokan jentie negarrez ikusten zan kalien. Hamen normalau hartu dou asuntue.

Bai, larrei baiño larreixaue. Batetik teknologixiei esker puztu daue, baiñe bestetik Opusekuek mobiduteko jentiek egin dau. Esaten daue zahar bat jarriko dauela oin, gutxi irauñ daixen.

Norberak ikusi biher daue la uste dot. Egixe da telebisiñuen montajie larreikue izen dala; hortan, nik ez neuen jarri be egitten, eta kitto. Barrixe liberala izetie gureko neuke.

Telebisiñuen eragiñe oso haundixe izen da, eta ondorioz larreixe izen da sortu dana. Horregatik fan zan hainbeste jente Erromara. Esaten daue Ratzinger izen biher dala barrixe, ez?

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK KIROL ETXEKO ITOGINAK** Kirol etxea dugu hizpide azken asteotan, eta txaloaren ostean txistua. Izan ere, itoginak ditu gure kirol etxeak. Euri asko egiten duenean, gainera, oso egoera txarrean gelditzen da kantxa, eta patinaje ikastaroa bertan behera utzi zuten egun baten. Ondo dago eguzki plakak jartzea, baina behar bezala konpontzea garrantzitsuagoa izango da, bada... /M.A.

### ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

## Edukiontzi bereziak jarri zituzten pilak jasotzeko

Edukiontzi bereziak jarri zituen Mankomunitateak pilak eta botoi-pilak jasotzeko. Marroi kolorekoak ziren, eta komertzioetan eta udaletxeko atarretan utzi zituen. Aurretik ere jasotzen zituen Mankomunitateak pilak, baina aldaketarekin sistema hobetu gura izan zuen.



### ASTEKODATUA

# O

#### LAGUNEK EMAN DU IZENA SAHARAKO UMEAK HARTZEKO

Saharako umeek uztaile eta abuztua gure artean pasatzeko familiak behar zituztela egin zuten deialdia Udalak eta Nubi elkar- teak. Inork ez du eman izenik, eta maiatzaren 20a arte luzatu dute.

### BESTEKEKESANA

**“Egungo egoeran, epe motzean, ezinezkoa da ETari indarkeria uzteko eskatzea. Gauza bakoitzak bere denbora eskatzen du eta hemen ez gaude denbora horretan. ETA eta Espainiako gobernuaren arteko harremana egon behar da emaitzak egoteko, baina lehenengo desblokeatze prozesua da, bestea iritsiko da.”**

**FELIX IRIARTE**  
'Asteleheneko Goienkaria'/05-04-11

Lehen zatian Mondrakoak izan dira nagusi, eta bigarrean gu, nahiz eta gure jokoa ez den oso ona izan. Eurek ere ez dute beste munduko ezer egin. Hemendik aurrera derrigortuta gaude partiduak irabaztera, zeren eta zuloan sartuta gaude; ea horrela moralak ere gora egiten duen.

**ERIK GARCIA**  
'Asteleheneko Goienkaria'/05-04-11

### HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



## Pragmatismo garaia

**D**omekako hauteskundei begira duela lau urteko tentsiorik antzematen ez bada ere hauteskundeok ez dira nolana- hikoak. Jokoa dago behin- goatik indar kopuru nahikoa biltzeko aukera Euskal Herri- rentzako autodeterminazio eskubidea lortu ahal izateko. Hala nola bakea, normaltasun politikoa eta garen sozialaren lorpenaren urratsak ematen jarraitu ditzagun.

Horretarako guztion partehar- tzea garrantzitsua da. Tamalez badaki- gu ezingo dela horrela izan, estrategia terroristaren iraupenak eta fronte espainolis- taren gehiegikeriek dakarten demokraziaren perbertsioak aparteko egoera baten utziko baitu berriz ere Euskal gizar- tearen parte esanguratsu bat.

Egoera honen aurrean zentzuz jokatu dugu, eta Madrili aurre egin ahal izateko indar kopururik handiena elkartzeko izan behar da lehenengo objektiboa. Oxala gure herriak

lehen baino lehen normaltasun demokratikoa erdiesten duen, koalizio abertzale eta aurrera- koiak posible izan daitezten. Baina hemen eta orain pragma- tismoa, arrazionaltasuna eta indarren akumulazioa daude beste edozeren gainetik. Hau da EA/EAJ-PNV koalizioaren izateko arrazoiak.

Azken urteotan, Legebiltzarrean eta Eusko Jaurlaritzan autodeterminazioaren kontzientziakun- tza eta beronen lorpenaren bidean urrats handiak eman dira. Baina zeregina ez da amaitu, eta datorren

legealdian bultzada areagotu egin behar da, hasitako bide honek guztiok nahi dugun emaitza eman dezan.

Abertzaleok gehiengo izango garen Legebiltzar berri bat da Eusko Jaurlaritza sendo baten berme bakarra. Europa- ko herrialde aitzinatuenekin batera aurrerabidean, Euskal Herri bateratu bat lortzeko behar diren pausuak eman ahal izango dituen Jaurlaritza sendoa.

**“Abertzaleok gehiengo izango garen Legebiltzar berri bat da Eusko Jaurlaritza sendo baten berme bakarra”**

**Aretxagazeta**

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Mirari Altube

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzua

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaleko  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

# Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a / 204. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Udalak laster egingo du Dorleta auzoaren berrantolaketa gaineko erakusketa

IKER BARANDIARAN

Datozen urteetan udalerrria goitik behera aldatzeko asmoa dute. Santa Anako proiektua onartuta dago, eta egunotan erabakiko dute zein enpresari esleitu. Bitartean, egunotan Dorleta auzoko proiektua bukatzen dabilta eta laster erakusketa egingo dute.

Udalak Injelar enpresari eskatu zion Dorleta auzoa eraberritzeko proiektua idazteko. Proiektu horren bidez, Udalak auzoa berrantolatu eta egokitu egin gura du. Hiru faseetan egingo dute: bata, bizitegi-auzoan; bigarrena, Tesaruntz doan ibilbidean; eta hirugarrena, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen ondoko zubian.

Eraberritzearen hiru faseak egiteak 2.750.000 euroko aurrekontua dauka. Hala ere, esan beharra dago kostu horren herena Eusko Jaurlaritzako Izartuk ordainduko duela.

Lehenengo fasean, besteak beste, lur azpitik doazen zerbitzuak aldatuko dituzte (saneamenduak, argindarra...); telefonia enpresei eskatuko diete kablesareak fatxadatik kendu eta lur azpira sartzeko; atarietara sartzeko arrapalak jarriko dituzte,



Beste lan askoren artean, Dorleta auzoko atariei arrapalak jarriko dizkiete, irisgarritasuna bermatzeko.

irisgarritasuna bermatzeko; eta plaza zeharo berrituko dute, besteak beste. Horrez gain, saihasbide pareko errepidean aparkalekuak bi aldetan jarriko dituzte; eta HUHEZIren alboan, lur azpiko edukiontzia.

### LEHENENGO FASEAK 10 HILABETE

Aipatutako lehenengo fasea egin hasi eta bukatu artean hamar bat hilabete beteko direla aditzera eman dute. Asmoa da hilabete honetan edo hurrengoan proiektuaren erakusketa egitea

kultura etxean, herritarrek iritzia eman dezaten. Horren ostean, herritarren iradokizunak kontuan hartuta, osoko bilkuran proiektua aztertuko dute eta alegazio epea zabalduko dute. Lanak uztailean esleitu gura

dituzte, eta lanak irailean hasi aurreikusitakoak dira.

Tesaruntz doan ibilbidean berriz, erreka ondoan espaloiak jarriko dute eta San Juan kalearen atzealdearekin lotuko dute. HUHEZI alboko zubian hainbat arazo izango dituztela aurreikusi dute.

### SANTA ANARAKO, BOST ENPRESA

Bestalde, Santa Ana eraberritzeko prozedurak aurrera dihardu. Auzo horretan honako lanak egingo dituzte: lur azpiko zerbitzuak eraberritzea; espaloiak zabaltzea; frontoi osteko plaza zehar zuhaitz batzuk landatzea; eta etxe kizunetan hainbat gune oinezkoendako bilakatzeko tarteko ekimenez batzuk egitea, besteak beste. Proiektua aurreratu zutenean auzo tarrak arduratu egin ziren auzo kalekuak gutxituko zirelako, baina Udalak aditzera eman du oraindik ez duela oinezko-gutxitze bilakatu, eta horren ordez auzo kaleku kopurua gehitu egingo dute.

Astean bost enpresak aurreratu dituzte aurrekontuak (Aretxabaletako Amaral, Zarauzko Amarenabar, Donostiako Fonorte eta Nafarroako Arkaitza-Sueskun eta Obenasa-Obegisak). Udalak berriro erabakiko du lan hori zein enpresari esleitu, eta lanak martxoan hasi gura ditu.

## Vasco-Navarro trenaren gaineko erakusketa, Inkernu tabernan

I.B.

Aitxorrotx kultura elkarteak Vasco-Navarro trenaren gaineko erakusketa jarri du Inkernu tabernan. Hilaren 22ra arte egongo da ikusgai ibarra zeharkatzen zuen garraiobide esanguratsu horren testigantza argazkietan.

Aitxorrotx kultura elkarteak sarri antolatzen ditu ekimenak. Besteak beste, hainbat gairen gaineko argazki erakusketak, mendi irte-


erak eta jaietan bestelako ekimenak. Oraingoan ibarra zeharkatzen zuen tren zaharraren gaineko argazkiak batu dituzte. "Gasteizko artxibategi batera jo genuen horien bila. Eta hainbat eskoriaztarrek argazki gehiago utzi dizkigute. Aukeraketa egin eta 50 bat erakusgai jarri ditugu", nabarmendu zuten elkarteak lagunek. Erakusketa hilaren 9an hasi zuten eta 24ra arte egongo da ikusgai Inkernu tabernan.

Argazkietan ibarreko hainbat herri agertzen dira: Eskoriatza,

Bergara, Arrasate... Tren geltokiak, trenak bide hori lehenengo aldiz egin zuenekoak... Argazki guztiak joan den mendeko lehenengo erdikoak dira.

### GAZTE ETA NAGUSIENDAKO, APROPOSAK

"Orain AHT egin gura dute, baina Vasco-Navarro bertan behera utzi zuten defizitarioa zelakoan. AHT egiteak ez dauka inolako zentzurik, gure ustetan. Eta gazteenek joan den mendean egon zen tren ikustea eta jakitea garrantzitsua dela pentsatu dugu", nabarmendu zuten.



Joan den mendean ibarra zeharkatzen zuen trenaren argazki multzoa batu dute.



**EMPRESA**  
Neurri handietan espezialista


*Udaberria  
geurean!*

# Harmanta

Gaztanadui 21, ESKORIATZA Tel.: 943 71 53 87

*Poltsak, zilarra...*

ORY Bainujantziak



- CHANTELLE
- PÉRÈLE
- PASSIONATA
- AUBADE
- PLAYTEX
- JANIRA
- MODIN
- SEÑORETTA
- ORY
- ACQUA
- UDY
- EMINENCE
- CATHIEVE
- LAND
- UNNO
- TUC-TUC
- SCHUSS
- EZPELETA
- DIM
- PULLIGAN



*Udaberria  
etorri da...*

**PIERCING**



# ALBOKA

Durana 36 ARETXABALETA Tel.: 943 77 16 10

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida



RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA

**"R.E.L.E."**  
Gotzon Beitia Lazkano

ESKORIATZA

Denda:  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65  
Tailerra:  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

**AITZORROTZ**  
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10  
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza  
Dekorativo eta Industriala

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxa: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Poltsikokoa: 608 92 11 18

**FRIXI** Eraikuntzak

Hormigoizko estruktura,  
urbanizazio, kontratak  
eta enpresen mantenimenduak



Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN**  
Iturgintza

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gasa •
- Berogailuak •
- Peetrolio-produktuak •
- limatizazioa •

**L. GONZALEZ**

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6  
ARETXABALETA  
686 113 581

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA  
Tel. eta faxa: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22

**ARETXARGI**

Modesto ROMEO  
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Instalazioen mantenu osoa  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatza

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

ALUMINIOA/P.V.C./POLIURETANOA  
ALUMINIOA-EGURRA  
PERTSIANAK ETA OSAGAIK

Aluminios  
**KURTZEBARRI**  
Aluminioak

Araba ibilbidea, 17 eta 23  
• Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 04  
• 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
• E-mail: kurtzebarri@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1  
117 posta kutxa  
ARETXABALETA  
Telefonoa eta faxa:  
943 79 78 45  
Poltsikokoa:  
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-ouskarriak, balkonerak, eta abar.

**ARETXABALETA**  
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETA

**J.J. ITURGINTZA**  
**IRURE**

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE 15  
ARETXABALETA

943 793 187

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

<b>ESKORIATZA</b>	
Udal etxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Lamialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

**OHARRAK**

**HAUTESKUNDE-MAHAIK**

Domekan, hauteskunde egunean, azkeneko urteotan moduan, kultura etxeko lehenengo solairuan jarriko dituzte lau hauteskunde-mahaiak. Udalak aditzera eman du igogailua dagoela, eta zailtasunak dituztenak ere igo ahal izango direla.

**BEHIN-BEHINEKO UDALTZAINA**

Udalak udaltzain bat kontratatuko du behin betiko. Horren prozedura egiten dabil, baina bitartean sei hilabeterako udaltzain bat behar du. Behin-behineko udaltzaina maiatzean hasiko da lanean. Bost lagun aurkeztu dira, eta orain probak egin beharko dituzte.

**BANDAREN KONTZERTUA**

Bihar, zapatua, San Asensio Bandak kontzertua egingo du San Pedro elizan, 20:00etan.

**DOMEKAN, ARETO FUTBOLA**

Domekan, Eskoriatza eta Lagun Onak taldeek jokatuko dute, 17:00etan.

# Umeen eta helduen gaineko antzerki-bakarrizketa, gaur, HUHEZIn

IKER BARANDIARAN

**Gaur, egubakoitza, Teresa Lopez de Munain aktoreak Ugaztun baten antsiak izeneko antzerki-bakarrizketa egingo du HUHEZInko aretoan, 22:30ean. Sarrera doan izango da. Umeen ikuspegi eta helduek umeengan zein jarrera duten aztertuko du.**



Teresa Lopez de Munain da Ugaztun baten antsiak ikuskizuneko protagonista.

Axtroki euskara elkarteak, Topagunearen bitartez, dibertitzeaz gain hausnarketa egiten lagunduko digun ikuskizuna ekarriko du HUHEZInko aretora. Ekitaldi hori Kultur Errotaren barruan egingo dute.

Bakarrizketa denez, lagun bakarrak esku hartuko du ikuskizunean. Baina Teresa Lopez de Munain ez da hasiberria eta eskola handia dauka antzerkigintzan eta beste hainbat arlotan. Hain zuzen ere, Donostiako Antzerki Eskolan Arte Dramatikoko ikasketak egin zituen, baita Italiako Squolla dell Attore Comicon eta Grotowsky Antzerki Laborategian ere. Bestalde, clown arloan ere ibilia da Virginia Imaz eta Carles Castillorekin. Hainbat antzerki ekoizpenetan lan egiteaz gain (*Kromlech, La cacatúa verde, Nondik...*), ETBko telesail eta

saioetan aktore eta aurkezle lanak ere egin izan ditu. Horrez guztiaz gain, Lopez de Munain ama ere bada, eta horrek ikuspegi zabalagoa ematen dio gaurko ikuskizuna eta beste batzuk egiteko orduan.

“Umeak munduaren etorkizuna dira, eta hobeto zaindu beharko genituzke”, azpimarratzen du bakarrizketa horren sortzaile eta aktoreak. *Ugaztun baten antsiak* ikuskizunean, emakume bat jaiotze unera bueltatuko da.

Hortik haurtzaroko sentimenduak berreskuratuko dituen bidaia berezi bat hasiko du. Iraganen izan zen umeak helduekin topo egin du, heldu kontraesankor eta iheskorrekin. Hala, umeak aurre egin beharko die amari, aitari, bizilagunei, andereñoari... Jakina, ikuskizunean pertsonaia horiek guztiak Teresa berak antzertu beharko ditu.

**HUNKIGARRIA ETA DIBERTIGARRIA**

Ikuskizun hori egiteko, egileak aintzat hartu ditu gizartean umeenganako dauden iritziak, ohi-turak eta mitoak. Teresaren uste-tan, “guztiok umeendako onena gura dugu, baina konturatu barik, tradizioaren erruz, guk dauzkagun aurreiritzi berak irakasten dizkiegu”.

Are gehiago, bere esanetan gizarteak ez ditu umeak dagoen besteko errespetuarekin hartzen, eta hori “akats handia da”, azpimarratu zuen.

Horrez guztiaz gain, ikuskizun horren bitartez, egileak kritika zorrotza egiten die ama askok ardura guztiak aurrera ateratzeko dituzten zailtasunei eta bizi behar duten egoerei.

Hala ere, hausnarketa eragiten duen bakarrizketa hori dibertigarria ere bada, duda barik.

## Debagoieneko erretiratuek mendi martxa egingo dute Kilometroen alde

I.B.

**Kilometroak 05en antolatzaileek, Debagoieneko Erretiratuen Elkartearen laguntzarekin, Erretiratuen Lehenengo mendi martxa antolatu dute Eskoriatzan. Bihar, zapatua, egingo dute.**

Kilometroak 05 antolatzen dabilen taldeak beste hainbat giza talde inplikatu gura ditu ikastolen aldeko ekimenean. Hortaz, erre-

tiratuengana jotzea erabaki zuten eta erretiratuen mendi martxa bat antolatzeko laguntza eskatu zieten. Ibarreko erretiratuek oso ondo hartu zuten egitasmoa. Izan ere, hainbat herritar urtero joaten dira halako martxak egitera.

**ALMENEN HASI ETA BUKATU**

Biharko, zapatua, egin dute hitzordua. Aurretik erretiratuen elkarteetan izena eman duten lagunek 09:00etan hasiko

dute martxa. Hain zuzen, lau laguneko taldeetan abiatuko dira, eta minutuko talde bat irtengo da. Almendik Erañara joko dute. Handik Bolibarre-raino helduko dira eta Arkarazo igarota, Almenara bueltatuko dira. Guztira, hamar bat kilometro egin beharko dituzte. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, ez dago aldapa handirik, eta azpimarratu dute “ez dela lehiaketa bat”. Parte-hartzaile bakoitzak 10 euro ordain-

du beharko ditu. Antolatzaileek martxaren hasieran eta ibilbidetan janaria eta edaria emango dizkiete.


Horrez gain, martxaren bukeran, Almenen luntxa egingo dute, eta parte-hartzaileen artean hainbat sari zozkatuko dituzte: besteak beste, egonaldia bainuetxeetan.

200 bat lagunek izena ematea aurreikusten zuten, eta aurretiaz elkarlanean gauza gehiago egiteko asmoa dute.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



Aranburuzabala 22, behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 51 20

**Villar**  
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko apirilaren 15a / 146. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Udalak irabazi egin du presoen senideen dirulaguntzekin lotutako epaiketa

UBANE MADERA

Arabako administrazioarekiko auzietako bi zenbakiko epaitegiak arrazoia eman dio Aramaioko Udalarari, preso senideei emandako dirulaguntza dela-eta. Sententziaren arabera, laguntza horiek emateko eskumena Udalarena da, beraz, ez dago deliturik.

Estatuko abokatuak salatu zuen Aramaioko Udala. Presoen senideei, preso bisitatzera joan ahal izateko 1.000 euroko dirulaguntza ematearren (Malagako Alhaurin de la Torre kartzelara Jon Agirre preso bisitatzera joateko eman zien laguntza Udalak haren senideei). Udalaren abokatu Txomin Escuderok jakinarazi digunez, laguntza horiek emateko eskumena Udalarena dela argudiatu zuten defentsa moduan Gasteizen izandako epaiketan, joan den martxoaren 15ean. Besteak beste, zera argudiatu zuten: "Udalak ahalmena du, oinarritzko udal zerbitzu sozialak direla-eta, pertsonen, familien edo taldeen integrazioa bultzatuko duten ekimenak lantzeko, batez ere, marjinazioari



Dagoeneko hiru bider salatu du Udala Estatuko abokatuak; bi epaiketa irabazi ditu eta bestea galdu, baina ez diote zigorrik ipini.

aurea hartzeko." Halaber, "laguntza horiek herritar guztiendako direla, inor diskriminatu barik", gaineratu zuten.

Hala, sententzian jakinarazi dutenez, argudio hori onartu eta

administrazioarekiko auzietako bi zenbakiko epaitegiak desestimatu egin du Estatuko abokatuak ezarritako errekurtsioa, Fernando Alcantarilla Hidalgo epailearen erabakiz. Horrenbestez,

bertan behera geratu da Udalaren kontrako salaketa. Hori bai, gogora ekarri beharra dago, orain, erabaki hori errekurritu egin daitekeela, EAeko Auzitegi Gorenean.

### IRIZPIDE BERRIAK

Gauzak horrela, Aramaioko Udala ez du aurrerantzean arazorik izango mota horretako laguntzak ematen segitzeko. Are gehiago, preso senideei laguntzak emateko irizpideak zehaztu ditu Udala orain dela gutxi. Horren arabera, honako baldintzak bete beharko dira: dirulaguntza jasotzeko ahal izango dituzte presoaren bikoteak, seme-alabek, gurasoek edo anai-arrebek; horietako batek jasotzen badu laguntza, gainontzekoek ezin izango dute gehiago eskatu; eta preso bakoitzeko eskaria bakarra egin ahal izango da.

Presoak ere bete beharko dituzte zenbait baldintza. Besteak beste, laguntza eskatzen duten herritarren erroldatuta izan beharko du, edo hain jaiotakoa izan.

### KARTZELAREN ARABERAKO LAGUNTZAK

Baldintzak betez gero, laguntza eman egingo du Udalak; kopurua baldintzatuta izango da kartzelaren kokalekuarengatik. Esaterako, gertuko erkidegoetako kartzelara joateko (Asturias, Madril...) bisitako 60 euro emango ditu; berriz, Andaluziara joateko, 200 euro bisitako.

## Agirre ospitalean da, baina ez dute haren askatasuna lortu

U.M.

Atzo, eguena, ziren ebakuntza egiteko Jon Agirre presoari. Donostiako ospitalean da joan den eguaztenaz geroztik, ebakuntzarako beharrezko zaintzak egiten. Hura oso pozik dago, 24 urteren ostean itzuli delako Euskal Herrira. Edozelan ere, Etxeratek gogora ekarri du oraindik preso dagoela.

Eskumako motor hezurreen protesia ipintzeko egin behar zioten ebakuntza Jon Agirre Azpikori. Baina albiste hau idaztean oraindik egin barik zegoen, beraz, ez dugu presoaren gaineko berririk.


Kontuak kontu hura oso pozik dago, batetik Euskal Herrira itzuli delako 24 urte Espainiako kartzelatan preso egon eta gero, eta bestetik, osasuna hobetzeko behar dituen ebakuntzak egin behar dizkiotelako; hala adierazi digu haren aldeko taldeak: "Zortzi urte zain egon eta gero sinetsi ere ez du egin ospitalean dagoela eta ebakuntza hain gertu".

### GUZTIENDAKO BAIMENIK EZ

Ertzaintzaren zaindaritzapean dago Jon Agirre ospitalean. Eta bi senitartekori egunero bisitatzeko baimena eman diete. Beraz, dezent onera egin du haren egoerak. Edozelan ere, Etxerat elkarteak

jakinarazi digu Azpikoren anai-arrebek bakarrik dutela hura bisitatzeko baimena, gainontzeko senitartekoei (lobek, koinatak) kanpoan geratu behar izaten dutela.

Horrekin batera, zera ere gehitu du Etxeratek: "Ospitalean egoitea albiste ona izan arren, Jon Agirrek preso izaten segitzen du. Horrenbestez, ebakuntza egin ostean, kartzelara eramango dute berriro, oraingoz Logroñora". Horren harira, gaineratu zuten Jon Agirreraren senide eta lagunek presoaren askatasuna aldarrikatzen segitzeko asmoa dutela. Hain justu ere, presoaren etxeratzea eskatzeko ekimena egin zuten joan den barikuan, Arrasaten.



Globoekin lotutako pankarta zeruratu zuten, Jon Agirreraren etxeratzea eskatzeko.



# Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a / 2. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## ELKARRIZKETA

DAVID FERNANDEZ/ESKUZ LARRUGINTZA TAILERRA

*“Askotan, lan sinpleena ondo egiteak ematen du poztasun handiena”*

XABIER URTZELAI

Otsailean eman zion Gipuzkoako Merkataritza Ganberak saria, eta sariak ongiatorriak badira ere, Davidek ez dio aparteko garrantzirik ematen. Sari batek baino, eguneroko lanak ematen du sinesgarritasuna.

**Larruarekin egiten duzue lan, baina zertan?**

Oinetakoak eta jantziak alde batera utzita, larruarekin egin daitezkeen gainontzeko gauza ia guztiak egiten ditugu: gerrikoak, poltsak, diru-zorroak, dekoraziorako objektuak... Horrekin batera, enkargu bereziak ere egiten ditugu; adibidez, musikarien instrumentuendako zorroak eta horrelakoak.

**Nongo jendeak egiten ditu horrelako eskaera bereziak?**


Orokorrean, Euskal Herri oso-tik egiten dizkirate enkarguak. Azken batean, artisautzako azoketan erakusten ditugu gure produktuak, eta azoka horiek leku askotan egiten dituzte. Azokak ondo egoten dira jendeak ezagutu zaitzan eta kontaktuak egiteko. Dena dela, komenigarria da tailerraz gain erakusketa txiki bat izatea. Izan ere, honaino bidaia luzea egin duenak guk egindako lanak ikusi gura izaten ditu.

**Nondik ekartzen duzue larrua?**

Erabiltzen dugun larruaren %90 Igaladatik ekartzen dugu, Bartzelonatik. Hogeita bost urte daramatzagu eurekin lanean; erabilera askoko larrua egiten dute.

**Azkeneko urteotan larrua garestitu egin dela entzun dugu.**

Gainontzeko produktuak garestitu diren moduan garestitu da larrua, baina ez gehiago. Behi eroen kontuarekin, etekina atera guran, batzuek goranzko joera eman zioten larruaren prezioari, baina serio lan egiten duten enpresek bere horretan jarraitu zuten, eta ez ziren joko horretan sartu. Baina, kafe bat ehun pezeta ordaintzetik euro bat ordain-



*“Uste dut larruaren prezioa gainontzeko gauzak moduan garestitu dela, ez gehiago”*

tzera pasatu gara, hortaz...

**Zer nolako zailtasunak izaten dituzue zeuon lanean?**

Salmentei dagokienez, ondo egongo litzateke gure merkatua normalizatu egingo balitz; adibidez, ferien zirkuitua zehaztu eta egonkorra egitea. Hala, jendeak jakingo luke nondik nora ibili behar garen.

*“Saltzeko orduan, komenigarria izango litzateke gure merkatua normalizatzea”*

**Lanean, zerek ematen du poztasun handiena?**

Askotan, gauza sinpleena ondo egiteak. Adibidez, gaur egun enpresa asko daude gerrikoak egiten dituztenak, eta kompetentzia horren aurrean norbaitek guk egindako gerrikoa aukeratzen duenean poztasuna sentitzen da.

## LABUR

**Soraluzetik etorri da gaur, berrogeita hamar gaztetxo osatutako taldea**

Gatz Museoko arduradunek esan digute 10 urteko berrogeita hamar gaztetxo zirela gaur Gatz Museora joatekoak. Soraluzeko Herri Eskolatik egin zuten bisitaldia egiteko eskaera. Horrelako gaztetxoak joaten direnean beste era batetako bisitaldia egiten dute: “Oso gazteak direnean jolasak eginez entretenitzen ditugu. Bestela, gaztetxoak berehala aspertuko lirakeke. Plastilinez hainbat irudi egiten ditugu, eta sasoi batean gatzarekin eta irinarekin egiten zuten oreka plastilinarekin egiten dugu guk. Jolasak egitea da adin horretan, museoa erakusteko modurik onena”.

## Datorren urtean, Euskal Bizikleta Leintz Gatzagara

X.U.

**Joan den zapatuan egon ziren Alberto Altube, Manolo Zubillaga eta Jon Sasiain Eibarren, Euskal Bizikletako antolatzaileekin berbetan. Euskal Bizikleta herrira ekartzeko asmoarekin joan ziren, eta ondo bete zuten helburua.**

Aurten, ekainean egingo duten itzuli horretako etapa bat herritik igaroko da, errepide berritik jaitsi beharrean zaharretik jaitisiko dira-eta.

Horrez gain, datorren urteko ekainean gatzagarrak lanpetuta ibiliko dira Euskal Bizikletan antolatzaile lanetan laguntzen. Lasterketa hori Leintz Gatzagara ekartzeko lanean ibili da zazpi-zortzi laguneko taldea, eta baita lortu ere. Gainera, etapa bat herrian amai-

tzeaz gain, hurrengo eguneko ere bertan hasiko dela adierazi digu kultura zinegotzi Jon Sasiainek.

**GORA BEHARREAN, ALDAPAN BEHERA** Berritasun modura, orain arte egin diren txirrindularitza lasterketetan ziklistek Gatzagara igo egin dute. Aurten, baina, Euskal Bizikletako etapa txirrindulariak errepide zaharretik behera egingo dute, Araba aldetik etorruta.

Euskal Bizikleta herrira ekartzeko asmoa joan den urtekoa da. Dorletako Amaren urterena zela aprobetxatuz, herriko ziklismo zaleak horretan ahal leindu ziren. Orduan lortu ez zutena orain lortu dute. Hala, amateur mailan Leintz Gatzagara egiten den lasterketak izena badauka ere, laster profesionalak ikusiko ditugu herrian”.



Oñatin izan berri ditugu txirrindulari profesionalak; laster etorriko dira Gatzagara